EUSKAL KULTUR ERAKUNDEA
—
INSTITUT CULTUREL BASQUE

# Ekintzen bilduma 2022



ETHNO PÔLE

Orbel - Atabaleko egonaldia - 2022 © L. Saragueta

Euskal kultur erakundeko diruztatzaileak (2022)

# Aurkibidea

**EUSKAL KULTUR ERAKUNDEKO BARNE ANTOLAKETA 2022an** ........ 6

## 1. ARDATZA: Euskal etnopoloari esker ondarea babestu ........ 8

**1.1.Euskal etnopoloaren egitasmoa kultura eskubideen haritik garatu** ........ 9
1. ekintza - Kultura eskubideak 2023-2026ko proiektu zientifiko eta kulturalaren ardatz ........ 9
2. ekintza - Kolokioaren antolaketa ........ 9
3. ekintza - Mintzaldien antolaketa ........ 9

**1.2. Memoria bildu eta artxibatu** ........ 11
4. ekintza - Ahozko memoria bildu: « Eleketa » programa ........ 11
5. ekintza - « Eleketa » lekukotasunen tratamendu artxibistikoa ........ 11
6. ekintza - « Mattin Larzabal » funtsaren tratamendua ........ 11
7. ekintza - Ahozko ondarearen kontsultagunearen kudeaketa ........ 11

**1.3. Sorkuntza, ikerketa eta bitartekaritza egitasmoak lagundu eta bultzatu** ........ 12
8. ekintza - « Museoa Urtu » egitasmoaren jarraikitzea ........ 12
9. ekintza - « Les Réveilllées » mintegiaren antolaketa ........ 12
10. ekintza - Euskal Herriko punk eszenari buruzko egun baten ko-antolaketa ........ 12
11. ekintza - Elkartekideen ikerketa egitasmoak lagundu ........ 12

**DIRU BILANA** ........ 13

## 2. ARDATZA: Euskal kulturari sentsibilizatu ........ 14

**2.1. Kultur aktualitatea baloratu** ........ 15
12. ekintza - EKE-ren ekintzei buruzko informazio haria ........ 15
13. ekintza - Berripaper baten asmatzea eta hedatzea ........ 15
14. ekintza - Social-media estrategiaren obratzea ........ 15
15. ekintza - Euskal kulturaren agendaren osatzea ........ 16
16. ekintza - Sortzaileei hitza ematea ........ 16
17. ekintza - Kultura eragileen errepertorioaren hobetzea ........ 16
18. ekintza - Argazki erreportajeak agerian ........ 16

**2.2. Eduki editorializatuak sortu eta zabaldu** ........ 17
19. ekintza - « Eleketa, Garazi-Baigorriko ahozko memoria » erakusketaren hedapena ........ 17
20. ekintza - « Eleketa, Zuberoako ahozko memoria » ........ 17
21. ekintza - Ipar Euskal Herriko ahozko memoriaren lekukotasun sortak ........ 18
22. ekintza - « Ehun urte antzerki Lapurdin eta Baxenabarren » dozier tematikoaren argitalpena ........ 18
23. ekintza - Euskal musikaren eta kantuaren timeline denbora lerroen esperimentazioa ........ 18
24. ekintza - Partitura bilduma baten garapena euskal koru kantuan aritzeko ........ 19

**2.3. Bitartekaritza ekintzak obratu** ........ 20
25. ekintza - Euskal funtsen sareari dedikatu egun profesionalen ko-antolaketa ........ 20
26. ekintza - Euskal kultura Baionako presondegian ........ 20
27. ekintza - Musika eta dantza tradizionalei buruzko egun baten ko-antolaketa, Kontserbatorioko ikasleentzat ........ 21
28. ekintza - *Zineskola* dispositiboaren koordinazioa ........ 21
29. ekintza - *Collège au cinéma* esperimentazioan parte hartzea ........ 21
30. ekintza - Kide diren elkarteei sostengua beren egitasmoetan ........ 22
31. ekintza - Laguntza Etxepare lizeoan iragan den antzerki talde baten egonaldiaren inguruko kultur bitartekaritza gauzatzeko ........ 22
32. ekintza - Biblio64arekin sentsibilizazio tresnen ekoizpena ........ 22

**2.4. Bideratuak diren bitartekaritza tresnak sortu** ........ 23
33. ekintza - Eskola denboran euskal kulturari buruzko sentsibilisazioaren inguruko lan-batzorde baten animazioa ........ 23
34. ekintza - « Etnologo ttiki » proiektuaren garapena Departamenduko artxibotegiarekin ........ 23
35. ekintza - Parte hartzea Hiriguna Elkargoko zerbitzuei zuzendu sentsibilisazio tresna batzuen sortzean ........ 23
36. ekintza - UEU-ren euskal kulturaren transmisioari buruzko gogoeta taldean parte hartzea ........ 23

**DIRU BILANA** ........ **24**

**3. ARDATZA: Kultur eragileak lagundu** ........ 26

**3.1. ELKARTUZ dinamika kolektiboa egonkortu** ........ 27
37. ekintza - Tailer tematiko batzuen antolaketa ........ 27
38. ekintza - Diagnostiko partekatu baten egitea ........ 27
39. ekintza - Dinamika baten abiatzea alor ezberdinak egituratzeko ........ 27

**3.2. Elkartekideak informatu eta aholkatu** ........ 28
40. ekintza - Sentsibilizazio eta informazio programa bat antolatu elkarteentzat ........ 28
41. ekintza - Laguntza dispositiboei buruzko informazioa ........ 28

**3.3. Kultur alorren egituraketan parte hartu** ........ 29
42. ekintza - Euskal literaturaren inguruko lantalde batean parte hartzea ........ 29
43. ekintza - Zinemari buruzko lantalde batean parte hartzea ........ 29
44. ekintza - Euskal dantza ibilbide bati buruzko lantalde batean parte hartzea ........ 29
45. ekintza - Ekoizpen diskografikoari buruzko topaketa profesional baten antolatzea ........ 29

**3.4. Sorkuntza eta bitartekaritza egitasmoak sostengatu eta bultzatu** ........ 30
46. ekintza - Kide diren elkarteei sostengua beren egitasmoetan ........ 30
47. ekintza - Sorkuntza egonaldi baten antolaketa Nekatoenean ........ 30
48. ekintza - *EKE-elkar literatura beka* obraren inguruko topaketak antolatu ........ 30
49. ekintza - Atabal musika gunean antolatu egonaldiei laguntza ........ 31

**DIRU BILANA** ........ 32

## 4. ARDATZA: Euskal kultura zabaldu ........ 33

**4.1. Tokiko hedapena sustatu eta sostengatu** ........ 34
50. ekintza - *Ibilki* programaren koordinazioa ........ 34
51. ekintza - *Zinema kanpoan* programaren koordinazioa ........ 34
52. ekintza - *Ama Lur* filmaren hedapena ........ 35
53. ekintza - Kultur programazioa  lagundu Mediateketan ........ 35
54. ekintza - Kide diren elkarteei sostengua beren egitasmoetan ........ 35
55. ekintza - Hego Akitaniako Eszena nazionalaren kultur programazioari laguntza ........ 35
56. ekintza - Malandain Ballet Biarritzen kultur programazioari laguntza ........ 36
57. ekintza - Kultur eskaintzari buruzko « Ibilki + » katalogoaren sortzea ........ 36

**4.2. Mugaz gaindiko kultur lankidetza jarraitu** ........ 37
58. ekintza - Gipuzkoako Foru Aldundiarekin « Iparraldea Bertan » zikloaren antolaketa ........ 37
59. ekintza - Bilboko « Loraldia » festibalaren programaziorako laguntza ........ 37
60. ekintza - Getxo hiriko « Iparra galdu gabe » festibalaren programaziorako laguntza ........ 37
61. ekintza - Kolaborazioa Getariako Elkano Fundazioarekin ........ 38
62. ekintza - Durangoko Azokaren antolatzaile den Gerediaga elkartearekin partaidetza ........ 38
63. ekintza - Aquitaine.eus programaren berriz zehaztea ........ 38

**4.3.  Kultur trukaketak sostengatu** ........ 39
64. ekintza - « Erasmus + » dispositiboaren integrazioa ........ 39
65. ekintza - SOKA-ren bertsio « transatlantikoa »-ren hedapena ........ 39
66. ekintza - Kide diren elkarteen mugikortasunerako laguntza ........ 39

**DIRU BILANA** ........ 40

**ELKARTEKIDEEN EGITASMOAK 2022** ........ 43

**ERANSKINAK** ........ 56

**2022ko elkartekideen zerrenda** ........ 57
**2022ko diru bilana** ........ 60
**2022ko emaitza kontuaren bilana** ........ 62

# Euskal kultur erakundeko barne antolaketa 2022an

## BILTZAR NAGUSIA

180 elkartekidek osatzen dute eta gainera barne dira ere legezko kideak eta pertsonalitate kalifikatuak.

## BULEGOA

***Lehendakaria*** Katixa DOLHARÉ-ÇALDUMBIDE anderea
***Lehendakariordea*** Mikel ERRAMOUSPÉ jauna
***Idazkaria*** Juhane DASCON jauna
***Diruzaina*** Peio SOULÉ jauna

## ADMINISTRAZIO KONTSEILUA

### INSTITUZIOEN TALDEA

***Estadoaren ordezkariak***
Julien CHARLES jauna,
Pirinio Atlantikoetako prefeta
Fabrice ROSAY jauna,
Baionako suprefeta
Maylis DESCAZEAUX anderea,
DRAC-eko zuzendaria

***Akitania Berria Eskualdearen ordezkariak***
Andde SAINTE-MARIE jauna,
eskualdeko kontseilaria
Frédérique ESPAGNAC anderea,
eskualdeko kontseilaria
*Ordezkoak:*
Émilie DUTOYA anderea,
eskualdeko kontseilaria
Jean-Luc ARMAND jauna,
eskualdeko kontseilaria

***Pirinio Atlantikoetako Departamenduaren ordezkariak***
Max BRISSON jauna,
departemenduko kontseilaria
Maider BEHOTEGUY anderea,
departemenduko kontseilaria

***Euskal Hirigune Elkargoaren ordezkariak***
Antton CURUTCHARRY jauna,
hizkuntza politika, kultura eta erkidegoko kultura ekipamenduetarako lehendakariordea
Joseba ERREMUNDEGUY jauna,
mugaz gaineko, Europako zein nazioarteko lankidetzetarako kontseilari ordezkaria

***Eusko Jaurlaritzaren ordezkaria***
Aitziber ATORRASAGASTI anderea,
kultura zuzendaria

***Nafarroako Gobernuaren ordezkaria***
Mikel ARREGI jauna,
hizkuntza politikaren zuzendaria

### KULTURA ERAGILEEN TALDEA

***Euskal kultura eragileen ordezkariak***
Katixa DOLHARÉ-ÇALDUMBIDE, lehendakaria
Mikel ERRAMOUSPÉ jauna, lehendariordea
Juhane DASCON jauna, idazkaria
Peio SOULÉ jauna, diruzaina
Agnès AGUER anderea
Patxi AMULET jauna
Pierre-Paul BERCAITS jauna
Marie BIDART anderea
Xabi ETCHEVERRY jauna
Filipe LESGOURGUES jauna

### KONTUETARAKO KOMISARIOA

Pierre ARANGOITS jauna

# Lantaldea

## ZUZENDARITZA & ADMINISTRAZIOA

***Zuzendaria***
Johañe ETCHEBEST jauna
***Administrazioa, konduak eta giza-baliabideak***
Elixabet MORTALENA anderea

## KULTURA EGITASMOAK ETA BITARTEKARITZA SAILA

***Ikusgarrigintza, zinema eta mugaz gaineko proiektuen arduraduna***
Frank SUAREZ jauna
***Kultura bitartekaritzaren koordinatzailea***
Maia ETCHANDY anderea

## ONDAREA & EUSKAL ETNOPOLOA SAILA

***Etnologoa eta Etnopoloaren koordinatzailea***
Terexa LEKUMBERRI anderea
***Ondarearen balorapenaren arduraduna***
Maite DELIART anderea (Maitane HERNANDEZ anderea )
***Etnopoloaren misio karguduna***
Maitane HERNANDEZ anderea (Alaia CACHENAUT anderea)

## TRANSMISIO & KOMUNIKAZIO SAILA

***Estrategia & egitasmo numerikoen arduraduna***
Jakes LARRE jauna
***Internet egitasmoendako itzultzailea & integratzailea***
Fred BERRUET jauna
***Multimedia erredaktorea***
Marion LASTIRI anderea (Lorentxa SARAGUETA anderea)

# 1. Euskal etnopoloari esker ondarea babestu

**1.1. Euskal etnopoloaren egitasmoa kultura eskubideen haritik garatu**
1.ekintza - Kultura eskubideak 2023-2026ko proiektu zientifiko eta kulturalaren ardatz
2.ekintza - Kolokioaren antolaketa
3.ekintza - Mintzaldien antolaketa

**1.2. Memoria bildu eta artxibatu**
4.ekintza - Ahozko memoriaren bilketa: « Eleketa » programa
5.ekintza - « Eleketa » lekukotasunen tratamendu artxibistikoa
6.ekintza - « Mattin Larzabal » funtsaren tratamendua
7.ekintza - Ahozko ondarearen kontsultagunearen kudeaketa

**1.3. Sorkuntza, ikerketa, bitartekaritza egitasmoak lagundu eta bultzatu**
8.ekintza - « Museoa Urtu » egitasmoaren jarraikitzea
9.ekintza - « Les Réveillées » mintegiaren antolaketa
10.ekintza - Euskal Herriko punk eszenari buruzko egun baten ko-antolaketa
11.ekintza - Elkartekideen ikerketa egitasmoak lagundu

**DIRU BILANA**

# 1.1 Euskal etnopoloaren egitasmoa kultura eskubideen haritik garatu

1. EKINTZA

## Kultura eskubideak 2023-2026ko proiektu zientifikoa eta kulturaren ardatz

Kultura eskubideen gaia lantzen hasi da etnopoloaren batzorde eragilea 2022ko lehen sei hilabeteetan. Kolokio bat ere antolatu da gai horretaz joan den ekainean. Horiek guziek hazi dute, dudarik gabe, etnopoloaren egitasmo berriaren idazketa (2023-2026). Egitasmo berri honek 4 ardatz tematiko argitan ematen ditu: ahozkotasuna eta ondare immateriala, ondarea eta sorkuntzaren arteko lotura, hizkuntzaren rola jendartean eta, nolaz ez, kultura eskubideen erronka. Lehen hiru gaiak ezagunak ditugu, etnopoloaren zutabeak direlako, sortu denetik.

Azken gaiak aldiz, berria denez, gomitatzen gaitu abiatu gogoetaren sakontzen eta kulturarekiko gure jarrera eta ereduak galdezkatzen. Euskal etnopoloaren egitasmo berria publikoki aurkeztuko da Kultura Ministeritzarekiko hitzarmen berria (2023-2026) izenpetuko denean, 2023ko martxoaren 16an.

2. EKINTZA

## Kolokioaren antolaketa

2022ko kolokioak hauxe zuen gaia: « Kultura eskubideek zerbaitetarako balio ote digute? Erronkak eta perspektibak » eta Baionako Euskal Museoan iragan da ekainaren 23 ta 24an. Jardunaldi hauek kultura eskubideak galdezkatu nahi izan dituzte hiru prismatik: hauen eraikuntza juridikoa eta instituzionala zein izan den, ondotik, nola politika publikoetan baliatuak diren, eta azkenik, komunitateei uzten dieten lekua. Zer ote dira kultura eskubideak? Nola pentsatuak eta idatziak izan dira? Zer da haien eraginkortasun juridikoa eta politikoa? Nori zuzenduak dira? Nolako oihartzuna dute gutarik bakoitzean? Galdera hauei erantzuten saiatu dira 20 mintzalariak. Orotara 60 ikerlari, politika eta elkarte munduko pertsona, baita artista ere elkartu dira topaketa horietan.

3. EKINTZA

## Mintzaldiaren antolaketa

Bosgarren aldikotz, Euskal kultur erakundeak bere partaideetaz lagundurik mintzaldi ziklo bat antolatu du.

2022ko martxoaren 4a: lehen mintzaldi hau « Kultura eskubideek euskal kulturari: zer ekarpen? », Jean-Michel Lucas-k emanik, mahain inguru batekin segitu da. Honetan parte hartu dute Jean-Michel Lucas-k berak, Antton Curutcharry, Maika Etxecopar, Xabier Itçaina eta Denis Laborde-rekin batera. 70 bat jendek parte hartu dute.
Tokia eta partaidea: Baionako mediateka

2022ko maiatzaren 19a: « Tanburinaren gizartea. Dantzarako soinuaren historio sozial baten alde», Xabier Itçainaren eskutik. Jean Haritschelhar katedrarekin antolatua (Etxepare institutoa, IKER laboratengia, Bordeaux Montaigne unibertsitatea). 30 bat partehartzaile.
Tokia eta partaidea: Baionako Euskal Museoa

2022ko azaroaren 10a: Mintegia eta mintzaldia
Tokia eta partaidea: Baionako Euskal Museoa

1.mintegia: « Euskal Herrian eta Frantzian egindako mende erdiko musika etnografia (1939-1984). Frantses Etnologia Zentroko etnomusikologoen ikerketak euskal alorrean (1947-1973): aitzin, ekarpena eta ondotik (XIX-XXI) ».

2.mintzaldia: « CNRS-ak euskal dantzaz eta musikaz egin inkesten aurkezpena (1947-1973) », Marie Hirigoyen Bidart-en eskutik, Iparraldeko kontserbatorioarekin ko-antolatua, « Arteen artean » ekitaldiaren karietara.
Orotara 50 jendek parte hartu dute.

IKER-ek eta Euskal Etnopoloak ko-antolatu 2022ko azken mintzaldia: « Eleaniztasuna: lehen hizkuntza, herentzia-hizkuntza eta bigarren hizkuntza », Kryzzia Gómez-ek emanik (Nanteseko unibertsitateko doktoregaia Hizkuntza Zientzien arloan) 2023ra gibelatu behar izan da, Covid-aren gatik.

# 1.2 Memoria bildu eta artxibatu

4. EKINTZA

## Ahozko memoriaren bilketa: « Eleketa »

« Eleketa » programak bere bidea segitu du 2022an: 15 lekukotasun bildu dira, horietarik 10 Xiberoan eta bost Nafarroa-Beherean. Orotara bederatzi emazte eta sei gizon kondatzen dira. Bi probintzia hauetan zentratu da bilketa, « Eleketa » erakusketa Nafarroa-Beherean egon baita 2022ko primaderan (Garazin eta Baigorrin) eta Xiberoan plantatuko baita 2023ko udan (Maulen). Ondorioz, eremu horietako hutsuneen betetzen saiatu gira.

5. EKINTZA

## « Eleketa » lekukotasunen tratamendu artxibistikoa

Maite Deliart erretretara joan denetik, langile berri bat aurkitu behar izan da eta formatu. Nahiz eta beranta hartu, 2022an bildu lekukotasun guziak tratatuak izan dira.

6. EKINTZA

## « Mattin Larzabal » funtsaren tratamendua

Mattin Larzabal fondoaren tratamendu artxibistikoak patitu du Maite Deliarten erretretara partitzeaz. Lan honetan hartu beranta berriz atzemanen da 2023an.

7. EKINTZA

## Ahozko ondarearen kontsultagunearen kudeaketa

Mintzoak.eus atariko ikus-entzunezko eta soinudun dokumentuak EKEren egoitzan kontsultagarri dira bertsio numerizatu batean (ahozko ondareari zuzendutako kontsultagunean), artxibo horien jabe ezberdinen baimenekin.
Ikus-entzunezko artxibo horiek eskuragarri izateko helburuarekin, 2022ko urtean zehar, EKE-k publikoaren galdera mota anitzei erantzun die, harrera eginez ere bertan funts ezberdinak kontsultatu nahi zituztenei.

Bestalde Baionako Euskal Museoko adixkideek argitaratu aldizkarian agertuko den artikulu elebiduna idatzia izan da, gure kontsultagunean diren artxibo funtsen zerrendatzeko.

# 1.3 Sorkuntza, ikerketa, bitartekaritza egitasmoak lagundu eta bultzatu

8. EKINTZA

## *Museoa Urtu* egitasmoaren jarraikitzea

Udan zehar, landa lana segitu da Xiberuan egonaldi desberdinen bitartez, bortuan (Ahuski, Irati, Bosmendieta, Malta, Askai eta Harriauski sektoreetan) eta uda aitzin eta ondoren ibarrean (besteak beste, Maule, Urdiñarbe, Muskildi, Idauze-Mendi, Altzürükü, Game-Zihiga, Altzai, Etxebar, Ligi, Larraine, Zalgize, Barkoxe eta Atharratzen kokatutako etxaldeak bisitatuz). Landa lanean bildutako materialak ordenatu eta digitalizatu dira, fitxa diseinu bat garatuz eta edukiz hornituz. Zintzarrigileen lantokien bisita segitu dugu.

Ekoizpen fasea martxan jarri da, joare egileen eta ondoko enpresen bisitarekin: CEIT (Donostia), Lortek (Ordizia) eta Undoren (Lasarte). Enpresen segipena eta koordinazioa egin da haien engaiamendua lortzeko.

Urte bukaeran aurkeztuko den Nader Koochaki artista donostiarraren *Museoa Urtu* egitasmoari hurbiletik loturik, bere *Soineko Paisaia* erakusketa Euskal Museoan instalatua izan da abenduan. Estreinaldia urtarrilaren 19an egin-da EKE, Gordailua eta Euskal Museoarekin. Ikusgai izanen da apirilaren 9a arte.

9. EKINTZA

## «Les Réveillées» mintegiaren antolaketa

Euskal Etnopoloak « Les Réveillées » mintegiaren 5. saioaren antolaketa (zazpi izan dira orotara) bere gain hartu du, Baionako Euskal Museoan, azaroaren 10ean. Mintegi hau François Gasnault (ondarearen kontserbatzailea, ikerketa eta dokumentazio kargudun, InVisu-usr 3103-INHA/CNRS) eta Marie-Barbara Le Gonidec-ek (Kultura Ministeritzako ingeniadorea) abiarazi zuten, izen bereko webgunea ezagutarazteko. Webgune honek bi frantses etnomusikologoek, (Claudie Marcel-Dubois (1913-1989) eta Maguy Pichonnet-Andral - 1922-2004), Euskal Herrian, Frantzian eta itsasoz haraindiko eremuetan 1939-1984 tartean bildu lekukotasunak erakustera ematen ditu.

Baionako saioak webgunea orokorki, eta Euskal Herrian eraman inkestak bereziki, aipatu ditu. Arratsaldeko saioa segitu da Euskal Etnopoloak Baionako Kontserbatorioarekin antolatu Marie Hirigoyen Bidart-en mintzaldi batekin, beti gai berdinaren inguruan (ikus mintzaldien antolaketa).

10. EKINTZA

## Euskal Herriko punk eszenari buruzko egun baten ko-antolaketa

Proiektu hori ez da gauzatu.

11.EKINTZA

## Elkartekideen ikerketa egitasmoak lagundu

Bost proiektu eta elkarte hurbilagotik segitu ditu Euskal Etnopoloak 2022an.
(Ikus 43. orrialdea: elkartekideen egitasmoak 2022)

# Diru bilana

| 1. ARDATZA: EUSKAL ETNOPOLOARI ESKER ONDAREA BABESTU | | | Pentsatua | Egina |
|---|---|---|---|---|
| | | KOORDINAZIOA eta prospektibak | 33882 | 30007 |
| 1.1. Euskal etnopoloaren egitasmoa kultura eskubideen haritik garatu | 1. ekintza | Kultura eskubideak 2023-2026ko proiektu zientifiko eta kulturalaren ardatz | 11395 | 11680 |
| | | *soldata kostua* | *11395* | *11680* |
| | 2. ekintza | Kolokioaren antolaketa | 19421 | 22819 |
| | | *soldata kostua* | *8421* | *13604* |
| | | *gertakariaren kostua* | *11000* | *9215* |
| | 3. ekintza | Mintzaldien antolaketa | 10075 | 9388 |
| | | *soldata kostua* | *6075* | *6477* |
| | | *gertakariaren kostua* | *4000* | *2911* |
| 1.2. Memoria bildu eta artxibatu | 4. ekintza | Ahozko memoriaren bilketa : Eleketa programa | 21383 | 24508 |
| | | *soldata kostua* | *19199* | *22646* |
| | | *Xiberoko azpi-tratamendua* | *2184* | *1862* |
| | 5. ekintza | "Eleketa" lekukotasunen tratamendu artxibistikoa | 12611 | 1838 |
| | | *soldata kostua* | *12611* | *1838* |
| | 6. ekintza | "Mattin Larçabal" funtsaren tratamendua | 11012 | 134 |
| | | *soldata kostua* | *11012* | *134* |
| 1.3. Sorkuntza, ikerketa eta bitartekaritza egitasmoak lagundu eta bultzatu | 7. ekintza | Ahozko ondarearen kontsultagunearen kudeaketa | 1005 | 2949 |
| | | *soldata kostua* | *1005* | *2949* |
| | 8. ekintza | "Museoa Urtu" egitasmoaren jarraikitzea | 9166 | 9632 |
| | | *soldata kostua* | *6166* | *4187* |
| | | *sorkuntzarako partaidetza Euskal Museoarekin* | *3000* | *3000* |
| | | *itzulpena* | | *2445* |
| | 9. ekintza | "Les Réveillées" mintegiaren saio baten ko-antolaketa | 4166 | 5234 |
| | | *soldata kostua* | *3666* | *4301* |
| | | *parte hartzaileak ordaintzeko gastuak* | *500* | *233* |
| | | *itzulpena* | | *700* |
| | 10. ekintza | Euskal Herriko punk eszenari buruzko egun baten ko-antolaketa | 1629 | 35 |
| | | *soldata kostua* | *629* | *35* |
| | | *gertakariaren kostua* | *1000* | |
| | 11. ekintza | Elkartekideen ikerketa egitasmoak lagundu | 7227 | 6809 |
| | | *soldata kostua* | *1227* | *809* |
| | | *partaidetza elkarteekin* | *6000* | *6000* |

| | | |
|---|---|---|
| **1. ARDATZA OROTARA:** | **142 973 €** | **125 033 €** |
| *soldatak :* | 115288 | 98667 |
| *gastuak :* | 27684 | 26366 |

# 2. Euskal kulturari sentsibilizatu

---

**2.1. Kultur aktualitatea baloratu**

12.ekintza - EKE-ren ekintzei buruzko informazio haria

13.ekintza - Berripaper baten asmatzea eta hedatzea

14.ekintza - Social-media estrategiaren obratzea

15.ekintza - Euskal kulturaren agendaren osatzea

16.ekintza - Sortzaileei hitza ematea

17.ekintza - Kultura eragileen errepertorioaren hobetzea

18.ekintza - Argazki erreportajeak agerian

**2.2. Eduki editorializatuak sortu eta zabaldu**

19.ekintza - « Eleketa, Garazi-Baigorriko ahozko memoria » erakusketaren hedapena

20.ekintza - « Eleketa, Zuberoako ahozko memoria »

21.ekintza - Ipar Euskal Herriko ahozko memoriaren lekukotasun sortak

22.ekintza - « Ehun urte antzerki Lapurdin eta Baxenabarren » dozier tematikoaren argitalpena

23.ekintza - Euskal musikaren eta kantuaren *timeline* denbora lerroen esperimentazioa

24.ekintza - Partitura bilduma baten garapena euskal koru kantuan aritzeko

**2.3. Bitartekaritza ekintzak obratu**

25.ekintza - Euskal funtsen sareari dedikatu egun profesionalen ko-antolaketa

26.ekintza - Euskal kultura Baionako presondegian

27.ekintza - Musika eta dantza tradizionalei buruzko egun baten ko-antolaketa, Kontserbatorioko ikasleentzat

28.ekintza - *Zineskola* dispositiboaren koordinazioa

29.ekintza - *Collège au cinéma* esperimentazioan parte hartzea

30.ekintza - Kide diren elkarteei sostengua beren egitasmoetan

31.ekintza - Laguntza Etxepare lizeoan iragan den antzerki talde baten egonaldiaren inguruko kultur bitartekaritza gauzatzeko

32.ekintza - Biblio64arekin sentsibilizazio tresnen ekoizpena

**2.4. Bideratuak diren bitartekaritza tresnak sortu**

33.ekintza - Eskola denboran euskal kulturari buruzko sentsibilizazioaren inguruko lan-batzorde baten animazioa

34.ekintza - « Etnologo ttiki » proiektuaren garapena Departamenduko artxibotegiarekin

35.ekintza - Parte hartzea hirigune elkargoko zerbitzuei zuzendu sentsibilizazio tresna batzuen sortzean

36.ekintza - Hirigune Elkargoko euskal kulturaren transmisioari buruzko gogoeta taldean parte hartzea

**DIRU BILANA**

# 2.1 Kultur aktualitatea baloratu

12. EKINTZA

## EKE-ren ekintzei buruzko informazio haria

Euskal kultur erakundearen iharduerak azaldu dituzten hainbat artikulu elebidun idatziak izan dira eke.eus atarian. Gure kultura egitasmoaren garapenaren berri eman dute (barne euskal etnopoloaren ekintzak).

www.eke.eus webgunearen 2022ko estatistikak

2022ko urtean zehar eke.eus atariko kontsulta estatistikek gorakada nabarmena ukan dute, azken hilabeteetan eraman diren erreferentziamendu optimizazio lanek ondorioak ekarririk, batez ere « Euskal kultura » eta « Agenda » ataletan.

- Sesioak (bisitak): 379 857 (+%30,28 / 2021)
- Erabiltzaileak (bisitariak): 283 335 (+%26,35 / 2021)
- Ikusitako orrialde kopurua: 1 013 536 (+%35,16 / 2021)

13. EKINTZA

## Berripaper baten asmatzea eta hedatzea

EKEren aktibitateei buruzko albiste haria hilabeteroko berripaperaren bidez hedatua eta agerian emana izan da ere. Tresna horri esker gainera, partaide ditugun instituzio eta elkarteen proiektu deialdien berri, baina ere formakuntza proposamenen eta ekarpen deialdien berri ematen da. Informazio zaintza berezia eramaten da horretarako.

2022an EKE-ren berripaperak bat egin du Euskal etnopoloarenarekin. Bere itxura grafikoa zaharberritua izan da. Bestalde, harpidetzeko prozesua hobetua izan da eta kanpaina bat eraman dugu harpidedun gehiagoren biltzeko, besteak beste kultura eragile eta partaide desberdinen artean.

14. EKINTZA

## Social-media estrategiaren obratzea

EKE-k berak baita ere bere elkarte-kideek eta orohar artistek eramaten dituzten egitasmoen inguruan komunikatzeko, betiere molde elkarreragilean, 2021ean pentsatu zen social-media estrategia obratu dugu Facebook, Instagram, Twitter, Linkedin eta Google Business sareetan.
Hau dena argitalpenen publikazioa astero programatuz.
Ondorioz publiko zabalago bat bildu dugu sare horietan kontsulta estatistiken gorakadak erakusten duen bezala.
Bestalde lantalde profesionaleko kide bakoitzaren email perfilean agertzen den izenpeduraren bidez hainbat ekitaldi/ekintza baloratuak izan dira ere, *BoostMyMail* zerbitzuaren bitartez.

2022ko zonbait estatistika:

- Facebook: 6086 harpidedun (+%25,07)
- Instagram: 1393 harpidedun (+%42,43)
- Twitter euskaraz: 2621 harpidedun (+%3,52)

15. EKINTZA

## Euskal kulturaren agendaren osatzea

Kultur eragileek eman datuetatik abiatuz eta euskarri desberdinetako prentsa/sare sozialen errepaso baten laguntzaz, EKEk egunero Ipar Euskal Herri mailako euskal kulturaren agenda osatzen du (mintzaldiak, kontzertuak, animazioak...).

Informazio guzi horiek herrika geolokalizatuak dira. Horrela, bildutako datuei esker, urteko kultura ekitaldiei buruzko ikuspegi orokor bat ukan dezakegu.

Oroitarazi behar da Eusko Jaurlaritzaren Kulturklik (http://kulturklik.euskadi.eus) atariarekin dugun partaidetzari esker, hego Euskal Herriko gertakarien hautaketa bat eskaintzen dugula, gure agendako atal berezi batean. Kulturklik atariak bera aldetik, ipar Euskal Herriko gertakarien berri eskaintzen du, EKEren agendan oinarrituta.

16. EKINTZA

## Sortzaileei hitza ematea

2008. urteaz geroz, hilabetero www.eke.eus atarian argitaratuak diren Euskal kulturaren lekukoak saileko elkarrizketen bidez, tokian tokiko kultura aktualitateko eragileei hitza ematen zaie (107 elkarrizketa argitaratuak gaur arte).
2018an elkarrizketen formatua berritu egin da, sortzaileek beren arteari buruz eta orohar euskal kulturaren orainaz eta geroaz dituzten iritziak eta gogoetak parteka ditzaten.
Bi hilabeteetarik behin argitaratuak dira orain, argazkiz eta bideo batez osaturik. Jasone Iroz kazetari ohiak (*Laukitik At*) egiten ditu.

Beste bost elkarrizketa eginak izan dira 2022an:

- Joanes Garcia-Basurco
- Kattalin Sallaberry
- Sustrai Colina
- Elena Clerc-Charriez
- Adur Larrea

17. EKINTZA

## Kultura eragileen errepertorioaren hobetzea

EKE-ko lantaldeak eke.eus atariko kultura eragileen errepertorioko fitxen hobetze-lanak prestatu ditu 2022ko urte hondarrean. Helburuetariko bat datuak babesteko Europako erregelamendu orokorrarekin bat egitea da. 2023an gauzatuko dira aurreikusi hobetze horiek. Errepertorioan agertzen direnei komunikazio kanpaina bat zuzendua izanen zaie eta berririk emanen ez duten eragileak kenduak izanen dira gure web-atariko errepertorio publikotik.

18. EKINTZA

## Argazki erreportajeak agerian

Euskal kultur erakundeak 4 erreportaje manatu dizkie 2022an hemengo zenbait argazkilariri, orohar Iparraldeko gazteak biltzen eta mobilizatzen dituzten sasoiko erritualen edo gertakari ezagunen jorratzeko.

Helburua bikoitza zelarik, alde batetik gure bitartekaritza ekintzetarako beharrezkoak diren argazki-funtsen aberastea eta bestetik bertako argazkilari-artista profesionalen lana sustatzea.

Erreportajeak eke.eus atarian argitaratuak izan dira.

Erreportajeak eta egileak:

- Libertimendua - Matiu Bordato
- EHZ festibala - Nahia Garat
- Ortzaizeko kabalkada - Séverine Dabadie
- Bertsolari txapelketa nagusia - Patxi Beltzaiz

# 2.2 Eduki editorializatuak sortu eta zabaldu

19. EKINTZA

## « Eleketa, Garazi-Baigorri » sortu eta zabaldu

2022ko martxoaren 26tik maiatzaren 21a arte, Baigorriko herriko etxe zaharrean ikusgai izan da *« Eleketa, Garazi-Baigorriko oroimenak »* erakusketa. Baigorriko baita inguruetako herrietako 110 lekukok beren bizipenak eta oroimenak aipatu dizkigute bideo-pasartez pasarte. Berrehun grabaketa baino gehiago izan dira ikusgai.
Erakusketa Euskal kultur erakundeak ekoiztu du, Pirinio Atlantikoetako departamenduaren Artxibotegiaren, eta Baigorriko Herriko etxearen partaidetzarekin.
Bideo-pasarteak beren jatorrizko transkripzioarekin eta itzulpenarekin (euskaraz edo frantsesez) aurkeztuak izan dira. Horrela bai euskaldunek bai erdaldunek gozatu ahal izan dituzte urtez urte bildu lekukotasunak. Bestalde, horien denen osagarri, lurraldeko lekukoek utzitako zonbeit argazki eta objektu erakutsiak izan dira ere.
Partikularrak eta ikerlariak bezala, tokiko irrati eta telebistak ere ari izan dira eta ari dira oraino Euskal Herriko memoriaren biltzen. Maite Barnetchek (1941-1986) hanbat erreportai egin zituen, telebista publikoak «Euskal Herria orai eta gero» lema pean zabaldu zituenak 1971-1986 arte hortan. Horietarik batzuk ikusi ahal izan dira Donibane Garazin, denak lurraldean filmatuak.
Azpimarratu behar da Kanaldude herri telebistak eta Aldudarrak elkarteak utzi dokumental ederrek osatuko dutela bilduma.

Aldi guziz, EKEk ikasleei zuzendu erakusketaren bisita gidatuak antolatu ditu, hortarako tokian tokiko tematikei egokitu liburuxka bat sortuz. Euskarri guziak padlet (lekukoen mapa, galde sortak) plataformaren bidez partekatuak izan ziren, irakasleek lan bat eraman zezaten bisita aitzin eta ondotik. Gainera, Kanaldude web telebistarekin elkarlanean, EKEk *Eleketa* emankizuna ekoiztu zuen. Erakusketan kontsultatzen ahal ziren hainbat pasartez osatu lehenengo ale honek emigrazioaren gaia jorratu zuen.

Bestalde *« Eleketa »* multimedia bornak Ortzaizen (Posta - 2022ko maiatza-iraila), Urepelen (Amerikanoinea kulturgunea - 2022ko iraila > 2023ko martxoa) eta Lekornen (Hodia etxea - 2022ko azaroa > 2023ko martxoa) ezarriak izan dira Garazi-Baigorriko eta Makea-Lekorneko lekukotasunen baloratzeko.

Gaualdiak antolatuak izan dira ere *« Eleketa »* bilketaren ondorioak herritarrekin partekatzeko.
Horrela, 2022ko maiatzaren 20an, mukurru bete zen Ortzaizeko zinegela Euskal kultur erakundeak herrian berean grabatu lekukotasun zonbaitzuen ikusteko.
Bide beretik 2022ko uztailaren 8an, *« Aitzin-Gero-Barnealdea »* erakusketaren karietara, Euskal kultur erakundeko Terexa Lekumberrik mintzaldi bat eskaini zuen *Ospitalea* departamenduko ondare hezkuntzarako zentroan, ahozko memoriaren bilketaren inguruko *Eleketa* programaz eta bereziki Irisarrin egina izan den lanaz.

Azkenik *Gure Irratia*rekin partaidetzan *« Eleketa »* irrati kronika sortu zen 2022ko urrian. Hilabetero lekukotasun zati hautatuak baloratuko ditu Arantxa Idiederen mikroan Terexa Lekumberrik komentatu kronikak.

20. EKINTZA

## « Eleketa, Zuberoako ahozko memoria »

2022. urteko bigarren partean hasi ginen 2023ko udan Maulen estreinatu beharko litzatekeen erakusketa prestatzen, Zuberoako lurraldean eraman « Eleketa » ahozko memoriaren bilketako emaitzetan oinarrituz.
Lehen bideo-pasarteen hautaketa bat egina izan da eta abiarazi da bideoei azpitituluak jartzeko prozesua (euskaraz eta frantsesez).

21. EKINTZA

## Ipar Euskal Herriko ahozko memoriaren lekukotasun sortak

500 bideo-lekukotasun baino gehiago baita ere muntaketa tematiko desberdinak sarean eman ditugu 2022an Mintzoak.eus atarian. Daramagun « *Eleketa* » ikus-entzunezko bilketatik datoz.
Bideo-pasarte eta muntaketa horiek 184 pertsonekin egin elkarrizketetatik hautatuak izan ziren eta publikoari erakutsiak « *Eleketa, ahozko oroimenak* » erakusketaren aurkezpenen karietara, Donibane Lohizunen (2021eko iraila), Donibane Garazin (2021eko azaroa) eta Baigorrin (2022ko martxoa). Mintzoak.eus plataforman ikus daitezke denak. 2021ean zabaldu genuen Hazparne aldeko korpusa aberastuko dute, besteak beste.

Bestalde, bilketaren emaitzen ezagutzeko modu berri bat proposatzen dugu 2022ko urte hondarraz geroz. Izan ere gai baten inguruan hautatutako elkarrizketa zatiak edo lekukotasun sortak agertuko dira hemendik aitzina Mintzoak.eus plataforman.

Hasteko, bost bilduma eman ditugun sarean, bideo-pasarte hautatuez osatuak. Gehienek azpitituluak badituzte :

- Euskal antzerkia Ipar Euskal Herrian (1950-1990)
- Zapatagintzaren undustria Hazparnen (1950-1970)
- II. mundu gerla garai Iparraldean (1939-1945)
- Donibane Lohizune - Ziburuko portua (1935-1995)
- Ipar Amerikarako emigrazioa (1950-1970)

22. EKINTZA

## «Ehun urte antzerki Lapurdin eta Baxenabarren» dozier tematikoaren argitalpena

Baserrietako sabai batzuetan, eskola giristinoetako aterpeetan edo parrokietako zinema aretoetan antzeztu euskal teatroa 1922an abiatu zen Senperen eta Hazparnen. Derragun beraz Lapurdin eta Baxenabarren egin komediek ehungarren urteburua ospatzen dutela.

Daniel Landart antzerki idazleak eta Antzerkilarien Biltzarreko lehendakari-sortzaileak Ipar Euskal Herriko euskarazko teatroaren gaur arteko historia aberats horren bilduma bat egin digu, « *Komediaz komedia Lapurdin eta Baxenabarren, 1945-1970* » (elkar, Baiona, 2019) liburuan oinarrituz, besteak beste.

Sei kapitulu nagusik osatzen dute eke.eus atarian argitaratu dugun ekarpen aberats hau, Euskal kultur erakundean gorderik den EATB Iparraldeko adarraren artxiboekin ilustraturik.

23. EKINTZA

## Euskal musikaren eta kantuaren *timeline* denbora lerroen esperimentazioa

Foku berezi batzuen bidez, denbora-sartzeak, eke.eus atarian jorratu gai kulturalen eta artistikoen jatorriari eta garapenari buruzko begirada orokor bat eskaini dezake.
Trinkoagoa den irakurketa maila honekin, publikoaren jakin-mina piztu nahi dugu, ondotik proposatutako gaiak sakontzera gomitatzeko.

Helburu horrekin, 2022an EKEk euskal kantuari eta musikari buruzko bi timeline argitaratu ditu, esperimentazio gisa.

**Euskal literaturaren eta musikaren arteko elkarreragina**
Idazleen eta musikarien arteko elkarreragina etengabea izan da Euskal Herrian 1960 hamarkadatik gaur arte. Hori erakusten digu Gotzon Barandiaran idazleak (1974, Larrabetzu) osatu duen album hautaketak. Kronologia interaktibo baten bidez agerian emanak diren diskoak Badok.eus plataforman entzun daitezke. Aipatuak diren idazleen hobeki ezagutzeko estekak proposatuak dira ere.

**Euskal kantutegien argitalpenen kronologia bat (1826-1946)**
Euskal kultur erakundeak eskaturik, Eresbil artxibategiko zuzendari ohia den Jon Bagüés musikologoak euskal lurraldeetako abesti eta dantza doinuak biltzen dituzten argitalpenen zerrenda osatu du, 1826tik 1946ra, denbora-lerro edo timeline baten bitartez.
Bildumak aurkezteaz gain (bertsio numerikora estekak proposatuz) kantutegiak osatu zituzten biltzaileak aurkezten dizkigu ere.
Gure kantu eta musika ondarea salbatu eta transmititu nahian lan ikaragarria eraman zuten pertsonaia horien ezagutzeko lan ederra eskainia zaigu hor.

24. EKINTZA

## Partidura bilduma baten garapena euskal koru kantuan aritzeko

Tokiko musikari batzuen laguntzarekin, badu orain zenbait urte Euskal kultur erakundeak partitura numerikoen bilduma bat publikoaren esku ezartzen duela koru kantuaren praktika sostengatzeko asmoz.
Horrela, 2022ko bukaeran, 680 partitura baino gehiago proposatuak ziren eke.eus atarian.
Biarritzeko *Itsasoa* koruko zuzendaria den Frédéric Sorhaitz-ek du bereziki bilduma aberastu ahots desberdinentzat harmonizatu ehunka partitura eskainiz.

2023. urterako pentsatuak diren bildumaren hobetzeak aurreikusi ditugu ere bere laguntzarekin.

**OHARRA**
**EKE-ren nortasun bisual berria**

Kulturgintzan aditua den Céline Collaud grafistak (Tolosa, Okzitania) Euskal kultur erakundearen logotipo eta karta grafiko berria (tipografia, koloreen hautaketa) asmatu ditu 2022an.
Nortasun bisual orokor hori 2023tik goiti erabiliko da Euskal kultur erakundeak erabiltzen eta ekoizten dituen euskarri guzietan. Gure elkarte-kideei eta partaide desberdinei horren berri emana izanen zaie.

# 2.3 Bitartekaritza ekintzak obratu

25. EKINTZA

## Euskal funtsen sareari dedikatu egun profesionalen ko-antolaketa

Euskal Funtsen sarea den BILKETArekin eta Biblio64 departamenduko egiturarekin partaidetzan, hiru egun profesional antolatuak izan dira 2022an:

**Ahozko euskal literatura, atzo eta gaur**
Data: 2022ko apirilaren 11a
Tokia: Sara - Idazleen Biltzarraren karietara
Egitaraua eta hizlariak:
- Mintzaldiak: « Ahozko euskal literatura: generoak eta adibideak » - Xabi Paya ; Sarako bestak (1864-1885): Lore-jokoak, bertso-paperak eta laster-koplariak » - Patri Urkizu
- A. Oyhenart-en testuetan oinarritu performantza artistikoa - BBAX taldea
- Mintzaldi musikatua: « Hitzen ahairea », Gotzon Barandiaran eta Rafa Rueda

**Euskal haur eta gazte literatura**
Data: 2022ko ekainaren 20a
Tokia: Bidarteko Toki-Toki mediateka
Egitaraua eta hizlariak:
- Mediatekaren bisita gidatua
- Mintzaldia: « Haur eta gazte literaturaren historioa », Xabier Etxaniz Erle
- Berritasunetan hautaketa bat ttipi-ttipien albumetatik gazteen eleberriak arte (15 urte), Ana Imaz (Libreplume), Elise Dilet (Ikas)
- Liburuzainen arteko trukaketa, beraiek hautatu album edo liburu batzuen inguruan

**Helduendako berritasunak (literatura, musika...) - Egun erdia**
Data: 2022ko azaroaren 17a
Tokia: Biblio64 - Kanbo
Hizlaria: Peio d'Uhalt – elkar liburudenda
Gaia: Argitalpen berriei buruzko informazio (literatura, musika...)

26. EKINTZA

## Euskal kultura presondegian

SPIP (*Service Pénitentiaire d'Insertion et de Probation* delakoa) egiturarekin partaidetzan, Baionako presondegian kultur aste baten antolakuntzaren bigarren edizioa.
Tailer praktiko batzuen bidez, Baionako presoei euskal kulturaren deskubriaraztea da helburu.
2022ko martxoaren 14tik 16ra

Tailerren egitaraua:

- Martxoaren 14a: Euskal kulturaren deskubritze mintzaldia (Pantxoa Etchegoin)
- Martxoaren 15a: Musika tailerra (Bilaka)
- Martxoaren 15a: Dantza tailerra (IDB)
- Martxoaren 16a: Dantza eta musika tailerra (IDB, Bilaka)

Tailer bakoitza bi ordukoa izan zen.

27. EKINTZA

## Musika eta dantza tradizionalei buruzko egun baten ko-antolaketa Kontserbatorioko ikasleentzat

2022an, Euskal kultur erakundearen partaidetzarekin Kontserbatorioan antolatu den Euskal kulturaren eguna apirilaren 2an iragan da. Azken edizioa izan da, 2022ko azaro-abenduan formula berria gauzatu aitzin.

Hautatu da eguna dantzaren eta musikaren artean banatzea, Joseba Tapiak animatu musika tailerrarekin eta Bilaka konpainiako Oihan Indartek animatu dantza tailerrarekin. Tailer horiek ez ziren bakarrik Kontserbatorioko ikasleei irekiak. Ipar Euskal Herriko musika eskola guzietako ikasleei zuzenduak ziren ere.

EKE, IDB, Malandain Ballet Biarritz, Maritzuli Konpainia, hirigune elkargoa eta Maurice Ravel Pays Basque Kontserbatorioarekin lankidetzan, « *Arteen artean* »-en lehen edizioa antolatua izan da aurten. Ekitaldi honek 2013an Maurice Ravel Euskal Herriko Kontserbatorioak eta Euskal kultur erakundeak elkarlanean hasi « *Euskal Kulturaren Eguna* »-ren lekukoa hartu du. Helburua, euskal adierazpen artistikoak agerian ematea da kontserbatorian, euskararen, sorkuntzaren eta praktika artistikoen inguruan gure kultura gero eta gehiago biltzeko, baloratzeko eta transmititzeko.

<u>**Egitaraua**</u>

**Azaroaren 10ean, Baionako Euskal Museoan**
Mintzaldi publikoa: « 1947 eta 1973 artean bildutako soinu artxiboen aurkezpena »
Marie Hirigoyen Bidarten mintzaldia 2022-2023ko Etnopoloaren mintegiaren baitan. Hitzaldia euskaraz aldibereko frantsesezko itzulpenarekin.

**Azaroaren 12an**, Baionako Henri-Grenet Auditorioa, « *Dantza artean* - Zer transmisio biharko? » mintzaldia
Arratsaldean, « *Arteen artean tailerrak* ».
Musika, Dantza eta Antzerki hiru tailer:
- Musika tailerra Jokin Irungaray eta Ximun Garat-ekin (*Dama* ikuskizuna).
- Dantza tailerra Jokin Irungaray eta Jose Casaubon-ekin (*Dama* ikuskizuna).
- Euskarazko antzerki tailerra David Ondarts-ekin (Théâtre des Chimères)

**Azaroaren 20an, Luhusoko Harri Xuri gelan,** *Dama* ikuskizuna.

28. EKINTZA

## *Zineskola* dispositiboaren koordinazioa

*Harri Zopa*, *Ernest & Celestine*, *Lur eta Amets* filmen emanaldiak 2022ko martxoaren 1etik maiatzaren 24ra arte iragan ziren Iparraldeko 11 zinema geletan. Guztira, hiru hezkuntza arloetako 3.725 ikaslek parte hartu zuten eskolei zuzendu 119 saioetan. Osasun neurriengatik, hasiera batean urtarrilaren 19rako aurreikusia zen irakasleentzako formakuntza eguna 2022ko martxoaren 2ra gibelatu behar izan zen, eta horrek eragina izan zuen parte hartzaileen kopuruan (47etatik erdia baino ez zen hurbildu). Aitzin proiekzioak Hezkuntza Nazionalak, Ikasek eta EKEk sortu ustiapen pedagogikoen aurkezpena egiteko aukera izan ziren.

2022-2023ko edizioari begira, *Zineuskadi*rekin topaketa bat antolatu zen, ikusle gazteei zuzendu euskarazko film mintegiaren inguruko hausnarketa komun bat egiteko.

29. EKINTZA

## *Collège au cinéma* esperimentazioan parte hartzea

*Collège au cinéma* esperimentazioa 2022an berritu zen. EKEk filmak hautatzeko prozesuan parte hartu zuen. 6. eta 5.eko ikasleentzat, *Handia* filma eta 4. eta 3.eko ikasleentzat, *Amama* filma ziren hautatuak izan. Bestalde, euskal zinemagintzaren alorrean duen ezagutzari esker, EKEk ustiapen pedagogikoak idazten lagundu du.

Cinévasion-ek gomitaturik, EKEk gidaritza batzordean parte hartu zuen, 2022ko ekainaren 29an. 2021-2022 urteko esperimentazioaren bilana eta geroko perspektibak aurkeztuak izan ziren.

30. EKINTZA

## Kide diren elkarteei sostengua beren egitasmoetan

EKE-k transmisio eta sentsibilizazio tailerrak lagundu ditu kultura alor ezberdinetan. 2022an hamabost transmisio eta sentsibilizazio proiektu sostengatuak izan dira, zinezko behar bati erantzuten ziotelako, hala nola antzerkiaren, kantuaren eta literaturaren eremuan. (Ikus 43. orrialdea: elkartekideen egitasmoak 2022)

31. EKINTZA

## Laguntza Etxepare lizeoan iragan den antzerki talde baten egonaldiaren inguruko kultur bitartekaritza gauzatzeko

Axut! kolektiboak eramanik, EKEk antzerki tailer eta mediazio ekintza proposamenak sustatu egin ditu. Jarduera horiek Baionako lizeoko ikasleei zuzenduak izan dira (Etxepare, Largenté, Villa Pia, Cassin lizeokoak) Huts Teatroak aurkeztu *Atzerrian lurra garratz* obraren karietara.
Egonaldia Etxepare lizeoan iragan da, lizeotarrei zuzendu 8 emanaldiekin urtarrilaren 17aren eta 21aren artean. Publiko zabalarendako emanaldi bat proposatua izan da urtarrilaren 21ean.

32. EKINTZA

## Sentsibilizazio tresnen ekoizpena « Biblio64 »rekin

Egitasmo hori bertan behera utzia izan da.

**OHARRA**

Euskal kulturaren ezagutzeko aste baten antolaketa Biarritzeko Le Connecteur gunean:
- 2022ko martxoaren 28tik maiatzaren 2ra: « Hitz Enea » erakusketaren instalazioa – Oskar Alegria
- Martxoaren 28an: Mintzaldia: « Euskal kultura: memorioa eta sorkuntza » - Pantxoa Etchegoin
- Martxoaren 29an: Erabil kolektiboaren hizkuntza iniziazio tailerra: « Euskara eta munduko hizkuntzei iniziazioa »
- Martxoaren 30an: ELIRALE – « O! » Bakarkako dantza garaikide emanaldia
- Martxoaren 31n: Sarde Sardexka elkartearen sukaldaritza tailerra « Pintxo party »
- Apirilaren 1ean: Bilaka konpainiarekin zirkulu dantza tailerra

# 2.4 Bideratuak diren bitartekaritza tresnak sortu

33. EKINTZA

### Eskola denboran euskal kulturari buruzko sentsibilizazioaren inguruko lan-batzorde baten animazioa

EKE hainbat alditan bildu da Hezkuntza Nazionaleko aholkulariekin, Euskal Haziak, Ikas eta Seaskarekin. Topaketa hauek euskal kulturaren eta euskararen transmisioaren lehen egoera akta baten egiteko, hutsuneak eta beharrak identifikatzeko eta ikastetxeetan jada plantan diren proposamen eta ekintzak zerrendatzeko aukera izan ziren.

Elkartruke hauek sentsibilizazio estrategia bat garatzera eramanen duen hausnarketa bateratuaren beharra nabarmendu zuten.

34. EKINTZA

### « Etnologo ttiki » proiektuaren garapena Departamenduko artxibotegiarekin

EKE hainbat alditan bildu da Departamenduko Artxiboekin arte eta kultura heziketa proposamen baten garatzeko ahozko memoriaren bilketa eta barolapenaren inguruan. Honen bidez, ikasleek Eleketa programa eta ikerketa etnografikoaren urratsak ezagutuko dituzte.

35. EKINTZA

### Parte hartzea hirigune elkargoko zerbitzuei zuzendu sentsibilizazio tresna batzuen sortzean

Euskara ikastearen eta euskal kulturaren transmisioaren arteko loturari buruzko topaketa batzuk antolatuak izan dira EEPrekin eta Euskal Hirigune Elkargoko euskara eta kultura zerbitzuekin. Lan pista batzuk aipatuak izan dira, 2023tik beretik transmisio estrategiaren barnean sakonduak izanen direnak.

36. EKINTZA

### UEU-ren euskal kulturaren transmisioari buruzko gogoeta taldean parte hartzea

EKEk UEUren baitan abiatutako mugaz gaindiko lan taldearen hainbat bilkuretan parte hartu zuen, helburua delarik euskal kulturaren transmisioa indartzea eta berraktibatzea eta gaur egungo erronkei erantzutea.

# Diru bilana

| 2. ARDATZA - EUSKAL KULTURARI SENTSIBILIZATU | | | | |
|---|---|---|---|---|
| | | | Pentsatua | Egina |
| | KOORDINAZIOA eta prospektibak | | 35526 | 26204 |
| | | | | |
| 2.1. Kultur aktualitatea baloratu | 12. ekintza | EKE-ren ekintzei buruzko informazio haria | 13283 | 10833 |
| | | *soldata kostua* | 13283 | 10833 |
| | | | | |
| | 13. ekintza | Berripaper baten asmatzea eta hedatzea | 9137 | 7606 |
| | | *soldata kostua* | 9137 | 7606 |
| | | | | |
| | 14. ekintza | Social-media estrategiaren obratzea | 24505 | 20651 |
| | | *soldata kostua* | 24505 | 20651 |
| | | | | |
| | 15. ekintza | Euskal kulturaren agendaren osatzea eta hedatzea | 23150 | 21754 |
| | | *soldata kostua* | 21650 | 21754 |
| | | *Publizitate kanpaina* | 1500 | |
| | 16. ekintza | Sortzaileei hitza ematea (4) | 9952 | 8580 |
| | | *soldata kostua* | 2952 | 1580 |
| | | *Azpi-tratamendua: Laukitik At (fondo dedikatuak)* | 7000 | 7000 |
| | 17. ekintza | eke.eus atariko kultura eragileen errepertorioaren hobetzea | 4169 | 2050 |
| | | *soldata kostua* | 4169 | 2050 |
| | | | | |
| | 18. ekintza | Argazki erreportajeak agerian | 4943 | 4957 |
| | | *soldata kostua* | 3243 | 1557 |
| | | *Eskaerak argazkilariei* | 1700 | 3400 |
| 2.2. Eduki editorializatuak sortu eta zabaldu | 19. ekintza | "Eleketa, Garazi-Baigorriko ahozko memoria" erakusketaren hedapena | 19806 | 22894 |
| | | *soldata kostua: koordinazioa, edukien sortzea, bitartekaritza* | 7232 | 12993 |
| | | *Erakusketaren hedapen kostuak (fondo dedikatuak)* | 12574 | 9901 |
| | 20. ekintza | "Eleketa, Zuberoako ahozko memoria" multimedia erakusketaren sortzea | 20242 | 9512 |
| | | *soldata kostua* | 16408 | 9512 |
| | | *Sortzeko kostuak (2023ra ekarri fondo dedikatuak)* | 3833 | 0 |
| | 21. ekintza | Ipar Euskal Herriko ahozko memoriaren lekukotasun sortak (Mintzoak) | 11612 | 8059 |
| | | *soldata kostua* | 6612 | 5145 |
| | | *Sorkuntza kostua* | 5000 | 2914 |
| | 22. ekintza | "Ehun urte antzerki Lapurdin eta Baxenabarren" dozier tematikoaren argitalpena | 3131 | 1808 |
| | | *soldata kostua* | 2131 | 1808 |
| | | *Itzulpena* | 1000 | |
| | 23. ekintza | Euskal musikaren eta kantuaren timeline denbora lerroen esperimentazioa | 2328 | 2846 |
| | | *soldata kostua* | 2328 | 2108 |
| | | *Itzulpenak (fondo dedikatuak)* | | 738 |
| | 24. ekintza | Partitura bilduma baten garapena euskal koru kantuan aritzeko | 2328 | 3242 |
| | | *soldata kostua* | 2328 | 3242 |
| | | | | |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| 2.3. Bitartekaritza ekintzak obratu | 25. ekintza | Euskal funtsen sareari dedikatu egun profesionalen ko-antolaketa | 4154 | 4873 |
| | | *soldata kostua* | 3654 | 4873 |
| | | *Partaidetza* | 500 | |
| | 26. ekintza | Euskal kultura Baionako presondegian | 2231 | 2328 |
| | | *soldata kostua* | 731 | 1848 |
| | | *Partaidetza* | 1500 | 480 |
| | 27. ekintza | Musika eta dantza tradizionalei buruzko egun baten ko-antolaketa, Kontserbatorioko ikasleentzat | 2775 | 1313 |
| | | *soldata kostua* | 1775 | 533 |
| | | *Partaidetza* | 1000 | 780 |
| | | *Itzulpena* | | 300 |
| | 28. ekintza | Zineskola dispositiboaren koordinazioa | 3162 | 3498 |
| | | *soldata kostua* | 1662 | 1998 |
| | | *Partaidetza* | 1500 | 1500 |
| | 29. ekintza | "Collège au cinéma" esperimentazioan parte hartzea | 3591 | 3303 |
| | | *soldata kostua* | 2091 | 1803 |
| | | *Partaidetza* | 1500 | 1500 |
| | 30. ekintza | Elkarteen laguntzea transmisio proiektuetan | 32963 | 44304 |
| | | *soldata kostua* | 2163 | 7429 |
| | | *Partaidetza elkarteekin* | 30800 | 36875 |
| | 31. ekintza | Laguntza Etxepare lizeoan iragan den antzerki talde baten egonaldiaren inguruko kultur bitartekaritza gauzatzeko | 4860 | 3616 |
| | | *soldata kostua* | 1360 | 116 |
| | | *Partaidetza* | 3500 | 3500 |
| | 32. ekintza | Sentsibilisazio tresnen asmatzea Biblio 64 liburutegiarekin | 487 | 146 |
| | | *soldata kostua* | 487 | 146 |
| | | | | |
| 2.4. Bideratuak diren bitartekaritza tresnak sortu | 33. ekintza | Eskola denboran euskal kulturari buruzko sentsibilisazioaren inguruko lan-batzorde baten animazioa | 3516 | 2264 |
| | | *soldata kostua* | 3516 | 2264 |
| | | | | |
| | 34. ekintza | "Etnologo ttiki" proiektuaren garapena Departamenduko artxibotegiarekin | 5000 | 1111 |
| | | *soldata kostua* | 4156 | 1111 |
| | | *Materialaren erostea* | 844 | |
| | 35. ekintza | Parte hartzea hirigune elkargoko zerbitzuei zuzendu sentsibilisazio tresna batzuen sortzean | 2548 | 817 |
| | | *soldata kostua* | 2548 | 817 |
| | | | | |
| | 36. ekintza | UEU-ren euskal kulturaren transmisioari buruzko gogoeta taldean parte hartzea | 402 | 265 |
| | | *soldata kostua* | 402 | 265 |
| | | | | |

| | | |
|---|---|---|
| **2. ARDATZA OROTARA:** | **249 800 €** | **218 832 €** |
| soldatak: | 176 048 € | 150 244 € |
| beste gastuak: | 73 751 € | 68 588 € |

# 3. Kultur eragileak lagundu

**3.1. ELKARTUZ dinamika kolektiboa egonkortu**
37. ekintza - Tailer tematiko batzuen antolaketa
38. ekintza - Diagnostiko partekatu baten egitea
39. ekintza - Dinamika baten abiatzea alor ezberdinak egituratzeko

**3.2. Elkartekideak informatu eta aholkatu**
40. ekintza - Sentsibilizazio eta informazio programa bat antolatu elkarteentzat
41. ekintza - Laguntza dispositiboei buruzko informazioa

**3.3. Kultur alorren egituraketan parte hartu**
42. ekintza - Euskal literaturaren inguruko lantalde batean parte hartzea
43. ekintza - Zinemari buruzko lantalde batean parte hartzea
44. ekintza - Euskal dantza ibilbide bati buruzko lantalde batean parte hartzea
45. ekintza - Ekoizpen diskografikoari buruzko topaketa profesional baten antolatzea

**3.4. Sorkuntza eta bitartekaritza egitasmoak sostengatu eta bultzatu**
46. ekintza - Kide diren elkarteei sostengua beren egitasmoetan
47. ekintza - Nekatoenean sorkuntza egonaldi baten antolaketa
48. ekintza - *EKE-elkar literatura beka* obraren inguruko topaketak antolatu
49. ekintza - Atabal musika gunean antolatu egonaldiei laguntza

**DIRU BILANA**

# 3.1 ELKARTUZ dinamika kolektiboa egonkortu

37. EKINTZA

## Tailer tematiko batzuen antolaketa

Otsailetik apirilera, Zurekin Gogaide egituraren laguntzarekin, EKEk ELKARTUZ tailerren bigarren fasea antolatu du, arte bisualetako, koru kantuko, gaurko musiketako eta zinemako eragileekin.

Alor bakoitzarentzat bi tailer antolatuak izan dira helburu hauekin: artista profesionalen eta amaturren, bai eta euskal kultur elkarteen ikuspunduak biltzea bakoitzaren kultur alorretaz eta etorkizunerako lehentasunezko proposamenak azalaraztea.

38. EKINTZA

## Diagnostiko partekatu baten egitea

Apirilaren 23an, 40 kultur eragile baino gehiago bildu dira Uztaritzen, euskal kulturaren diagnostiko baten egiteko asmoz EKEk 2021eko urrian abiatu « Elkartuz » tailerren sintesian parte hartzeko.

Emaitzen ezagutzeko bilkura hori, tailerretan ikertuak izan diren kultur alor guzietako ordezkarien presentzian iragan da (antzerkia, literatura, dantza & dantzatzeko musikak, bertsolaritza, gaurko musikak, koru kantua, arte bisualak eta zinema). Kultur alor bakoitzeko ordezkariek beren alorraren diagnostiko labur bat egin dute, egituratze mailan eta arazoetan zentratuz. Problematika amankomunak agerian ezarriak izan dira, memoriaren babestearen eta transmisioaren, kultura bitartekaritzaren, artisten ikusgarritasunaren, euskararen presentziaren edo kulturaren berritzearen eta partekatzearen inguruan.

Xede ezberdinen baina ere 2023-2026ko bide orriaren karietara Euskal kultur erakundeak laguntzen ahalko dituen proiektu konkretu batzuren ikuspegi zabal bat izateko parada.

39. EKINTZA

## Dinamika baten abiatzea alor ezberdinak egituratzeko

Apirilaren 23ko bilkuraren ondotik, lantaldeak osatu dira proiektu konkretuen obratzea eta tailerretan identifikatuak izan diren egituratze urraspideak abiatzeko.

Topaketak 2022ko irailean hasi ziren eta 2023an segitzen dute, helburua eragileak kultur alorren eta kultur-arteko egituraketa prozesu kolektibo batean inplikatzea delarik, proiektu jakin batzuen inguruan, eta aldi berean, erakunde arteko eta egitura arteko dinamikak sustatzea ekintza horien sostengatzeko.

# 3.2 Elkartekideak informatu eta aholkatu

40. EKINTZA

## Sentsibilizazio eta informazio programa bat antolatu elkarteentzat

Profession Sport et Loisirs 64 (PSL64) elkartearekin partaidetzan, bi informazio gaualdi eta jarraikitze kolektibo baten antolaketa. Jarraikitze eta gaualdien tematikak, elkartekideen beharrak kontsultatu eta definitzen dira.

**Jarraikitze kolektiboa:**
Gaia: « Egitasmoaren finantzamendua eta balorapena »
Aurten EKEren 6 elkartekidek parte hartu dute Combustible egiturako Mireille Cordeau eta Carine Puyok eraman jarraikitzean:
- Batcharte dantza
- Iparraldeko Dantzarien Biltzarra
- Maritzuli
- Erabil
- Jakinola
- Berritza

**Saio kolektiboak:**
- 2022ko irailaren 6an
- 2022ko irailaren 29an
- 2022ko azaroaren 29an (saio kolektiboa + bilana)

**Bakarkako saioak:**
- 2022ko azaroaren 2, 10 & 16, 28an

Egitura bakoitzak 4 eguneko jarraikitzea ukan du 2022ko iraila eta azaroaren artean.

Bilana egiterakoan, egiturek jarraikitzea segitzeko xedea erakutsi dute, ebaluaketa baten plantan emateko eta ikasi tresnen esperimentatzeko. Ondorioz, 2023an jarraikitzea segituko da elkarte talde berdinarekin.

41. EKINTZA

## Laguntza dispositiboei buruzko informazioa

Erakunde publikoek eta beste egiturek (Euroeskualdea, Erasmus +, Etxepare Institutua, eskualde agentziak...) proposatu laguntza dispositiboei buruzko azterketa lan bat hasia izan da. Dispositibo horiek tokiko proiektu eramaileen beharrei erantzuteko gaitasuna dutenez,  helburua EKEk elkarteei buruz daraman aholkularitza eta laguntze maila handitzea da.

Ekintza hau ezin izan da erabat burutu, denbora eta giza baliabide faltagatik.

# 3.3 Kultur alorren egituraketan parte hartu

42. EKINTZA

## Euskal literaturaren inguruko lantalde batean parte hartzea

ALCAk (Agence Cinéma et Livre en Nouvelle Aquitaine), EEP-k eta EKEk, DRAC-ak eta Eskualdeak lagundurik, Euskarazko liburu kate osoaren inbentarioa egiten duen ikerketan parte hartzea. Liburuaren industrian berezitua den Axiales kabineteak eramanen duen ikerlan horrek, alde batetik liburu katea (argitaletxe...) eta bestaldetik lurraldeko literatura ekitaldiak (azoka, ekitaldiak...) ikertuko ditu.

EKEk hainbat prestaketa bilkuretan parte hartu du partaide ezberdinekin, beharrak definitzeko, galdesorta prestatzeko baita lotura eginez galdezkatuak izanen diren eragile batzuekin (bereziki literatura ekitaldi antolatzaileekin). Durangoko Azokaren antolatzaileekin lotura egin da ere, ikerketan parte har dezaten.

Ikerlanaren egutegia: 2022ko urritik 2023ko martxora

43. EKINTZA

## Zinemari buruzko lantalde batean parte hartzea

EKEk lan bilkura batzuetan parte hartu du EHU-ko partaide eta kideekin, ipar EHko zinemaren eta ikus-entzunezkoaren egoera aztertzeko:
- Martxoak 11 - Departamenduko delegazioa - Baiona
- Uztailak 12 - EEPren egoitza - Baiona
- Abenduak 12 - EHHEaren egoitza - Baiona - Ikerlanaren aurkezpen ofiziala

Helburua: Ipar Euskal Herriko zinema eta ikus-entzunezko arlorr, aren egituratzearen segipena

44. EKINTZA

## Euskal dantza ibilbide bati buruzko lantalde batean parte hartzea

EKEk Maurice Ravel Kontserbatorioak EKEren eta IDBren partaidetzarekin osatu lantaldean parte hartu du, irakaskuntza ibilbide bat lantzeko, kontzeptu berritzaile bat proposatuz: «Dantzatzen erakutsi eta ez dantzak ikasi». Gogoetak 2023an segitzen du, Kontserbatorioan euskal dantza eta musika ibilbide baten sortzearekin.

45. EKINTZA

## Ekoizpen diskografikoari buruzko topaketa profesional baten antolaketa

Gauzatu ez den proiektua.

# 3.4 Sorkuntza eta bitartekaritza egitasmoak sostengatu eta bultzatu

46. EKINTZA

## Kide diren elkarteei sostengua beren egitasmoetan

Laguntza lurraldeko sorkuntza proiektuei, eremu artistiko, amatur eta profesional ezberdinetan. Aurten, 30 proiektu inguru sortu direla aurreikusten da, horien artean artista berrien proiektu batzuk eta amatur andana bat elkartzen dituzten ikusgarri batzuk profesionalen laguntzarekin gauzatzen direnak.
(Ikus 43. orrialdea: elkartekideen egitasmoak 2022)

47. EKINTZA

## Sorkuntza egonaldi baten antolaketa Nekatoenean

Hamabigarren urtearentzat, Euskal kultur erakundeak, CPIE Euskal Itsasbazterrak eta Euskal Idazleen Elkarteak, beren baliabideak eta gaitasunak bateratu dituzte literatura sorkuntza egonaldi bat antolatzeko.

Karia hortara, euskal autoreak gomitatzen dituzte Abbadia Eremuko Nekatoenea etxean, Hendaian. Hirugarren eta azken urtearentzat Elkano fundazioa egitasmoaren partaide izan da ere. Urriaren 3tik 28ra iragan den egonaldiarentzat, Zoe Bray margolari, idazle eta antropologoa hautatua izan zen, « June eta Mundua » album ilustratu proiektuarentzat.

Bere azken parte hartzearentzat, Elkano Fundazioak, bigarren idazle bati egonaldi bat eskaintzea proposatua zuen. Ondorioz, finalistetan zen Oihane Garmendia Erronkariarra EIEk kudeatutako Pasaiako Hugoenean egonaldi etxean egona da hilabete batez. Bidaia gaitzat hartuz, kolegiotarrei zuzendu unitate didaktiko bat landu du.

48. EKINTZA

## *EKE-elkar literatura beka* obraren inguruko topaketak antolatu

Adur Larrea ziburutarrak 2021ean «EKE-Elkar BEKA» irabazi zuen «Lurbinttoko ohoinak» bere eleberri grafiko historiko proiektuarentzat. Elkar Fundazioarekin partaidetzan, obraren argitalpenaren karietara prentsaurreko bat eta liburu aurkezpen bat antolatuak izan dira. Adur Larreak ekitaldi hauetan azaldu ahal izan du bere obraren gorpuzteko eraman dituen ikerketa guziak.

- Prentsaurrekoa: 2022ko azaroaren 16an, Itsasuko Alzuyeta etxean.

- Liburu aurkezpena: azaroaren 18an, Itsasuko Alzuyeta etxean.

**Obraren laburpena:**
1795ean, bi urtez iraun zuen Konbentzio Gerla bukatu zelarik, gudu-zelaian, deportazio eremuetan edo exilioan egonak zirenek etxerako bidea hartu zuten. Herrira heltzean, haietarik anitzek, beren etxea edota lurrak okupatuak, kixkaliak edo barreatuak atzeman zituzten.

Ezpeleta, Itsasu, Larresoro edo Kanbo inguruetako soldatu ohi zonbait, gerlak emana zien esperientziaz (eta armez) baliaturik, mendeku gosez zeuden deportatu eta exiliatu ohi batzuekin elkartu ziren, eta ohoin banda bat osatu zuten.

Bi urtez, Lapurdi ekialde horretan, deportaziora, exiliora edo gerlara igorriak zituztenak jazarri zituzten, haien etxeetan ebatsiz eta egitate bortitzak burutuz. Lurbinttoko eremuan zuten beren gordelekua. Azkenean harrapatuak izan ziren eta Frantziako epa ileen aitzinera eramanak.

49. EKINTZA

## Atabal musika gunean antolatu egonaldiei laguntza

Atabalekin partaidetzan, diru eta ingeniaritza laguntza bat eman euskal musika talde berrien zuzeneko emanaldiak prestatzeko.

Odei, Auhen eta Orbel musika talde berriei laguntza, Atabal Musika Gunean eginiko egonaldientzat.

- Odei - apirilaren 11 eta 12an
- Auhen - maiatzaren 30, 31 eta ekainaren 1ean
- Orbel - urriaren 3, 4 eta azaroaren 7, 8 eta 9an

# Diru bilana

| 3. ARDATZA - KULTUR ERAGILEAK LAGUNDU | | | Pentsatua | Egina |
|---|---|---|---|---|
| | KOORDINAZIOA eta prospektibak | | 31974 | 23382 |
| 3.1. ELKARTUZ dinamika kolektiboa egonkortu | 37. ekintza | Tailer tematiko batzuen antolaketa | 12171 | 13926 |
| | | *soldata kostua* | *4871* | *7216* |
| | | *Programaren kostua (fondo dedikatuak)* | *7300* | *6710* |
| | 38. ekintza | Diagnostiko partekatu baten egitea | 1507 | 5384 |
| | | *soldata kostua* | *1507* | *5384* |
| | 39. ekintza | Dinamika baten abiatzea alor ezberdinak egituratzeko | 4595 | 3085 |
| | | *soldata kostua* | *4595* | *3085* |
| 3.2. Elkartekideak informatu eta aholkatu | 40. ekintza | Sentsibilizazio eta informazio programa bat antolatu elkarteentzat | 11013 | 6809 |
| | | *soldata kostua* | *4513* | *2809* |
| | | *Partaidetza* | *6500* | *4000* |
| | 41. ekintza | Laguntza dispositiboei buruzko informazioa | 5498 | 131 |
| | | *soldata kostua* | *5498* | *131* |
| 3.3. Kultur alorren egituraketan parte hartu | 42. ekintza | Euskal literaturaren inguruko lantaldeeta parte hartzea | 2077 | 2163 |
| | | *soldata kostua* | *2077* | *2163* |
| | 43. ekintza | Zinemari buruzko lantalde batean parte hartzea | 2003 | 4790 |
| | | *soldata kostua* | *2003* | *4790* |
| | 44. ekintza | Euskal dantza ibilbide bati buruzko lantalde batean parte hartzea | 429 | 1543 |
| | | *soldata kostua* | *429* | *1543* |
| | 45. ekintza | Ekoizpen diskografikoari buruzko topaketa profesional baten antolatzea | 3806 | 110 |
| | | *soldata kostua* | *3576* | *110* |
| | | *Harrera gastuak* | *230* | *0* |
| 3.4. Sorkuntza eta bitartekaritza egitasmoak sostengatu eta bultzatu | 46. ekintza | Kide diren elkarteei laguntza beren egitasmoetan | 61238 | 57211 |
| | | *soldata kostua* | *3638* | *5111* |
| | | *Partaidetza elkarteekin* | *57600* | *52100* |
| | 47. ekintza | Sorkuntza egonaldi baten ko-antolaketa Nekatoenean | 4878 | 4027 |
| | | *soldata kostua* | *2378* | *1527* |
| | | *Partaidetza* | *2500* | *2500* |
| | 48. ekintza | "EKE-Elkar literatura beka" obraren inguruko topaketak antolatu | 2847 | 3140 |
| | | *soldata kostua* | *1647* | *740* |
| | | *Partaidetza* | *1200* | *2400* |
| | 49. ekintza | Laguntza Atabal musika gunean antolatu egonaldiei | 6502 | 5970 |
| | | *soldata kostua* | *2002* | *1470* |
| | | *Partaidetza* | *4500* | *4500* |

| 3. ARDATZA OROTARA: | 150 538 € | 131 671 € |
|---|---|---|
| soldatak : | 70708 | 59461 |
| beste gastuak: | 79830 | 72210 |

# 4. Euskal kultura zabaldu

**4.1. Tokiko hedapena sustatu eta sostengatu**
50. ekintza -  *Ibilki* programaren koordinazioa
51. ekintza - *Zinema kanpoan* programaren koordinazioa
52. ekintza - *Ama Lur* filmaren hedapena
53. ekintza - Kultur programazioa lagundu mediateketan
54. ekintza - Kide diren elkarteei sostengua beren egitasmoetan
55. ekintza - Hego Akitaniako Eszena nazionalaren kultur programazioari laguntza
56. ekintza - Malandain Ballet Biarritzen kultur programazioari laguntza
57. ekintza - Kultur eskaintzari buruzko « Ibilki + » katalogoaren sortzea

**4.2. Mugaz gaindiko kultur lankidetza jarraitu**
58. ekintza - Gipuzkoako Foru Aldundiarekin « Iparraldea Bertan » zikloaren antolaketa
59. ekintza - Bilboko « Loraldia » festibalaren programaziorako laguntza
60. ekintza - Getxo hiriko « Iparra galdu gabe » festibalaren programaziorako laguntza
61. ekintza - Getariako Elkano Fundazioarekin kolaborazioa
62. ekintza - Durangoko Azokaren antolatzaile den Gerediaga elkartearekin partaidetza
63. ekintza - Aquitaine.eus programaren berriz zehaztea

**4.3. Kultur trukaketak sostengatu**
64. ekintza - « Erasmus + » dispositiboaren integrazioa
65. ekintza - SOKA-ren bertsio « transatlantikoa »-ren hedapena
66. ekintza - Kide diren elkarteen mugikortasunerako laguntza

**DIRU BILANA**

# 4.1 Tokiko hedapena sustatu eta sostengatu

50. EKINTZA

## *Ibilki* programaren koordinazioa

Antzerki obren aukeratzea, katalogo baten eraikitzea eta herriei proposatzea. 2022 urteko edizioan 12 herrik parte hartu dute (Azkaine, Baiona, Bidarte, Biriatu, Ziburu, Hazparne, Hendaia, Arrosa, Maule, Donibane Lohizune, Donibane Garazi, Hiriburu) 14 antzerki taldeen 30 bat emanaldi programatzeko, 3000 ikusle baino gehiago bildu direlarik:

- **Iki Mihi Klik**, Eleka konpainia, Luna Negra Baiona (otsailak 15)
- **Besteen kalea**, Jour de Fête konpainia, Luna Negra Baiona (otsailak 22)
- **Lur,** Xake Produkzioak, Erabilera anitzetako gela Ziburu (otsailak 23)
- **Oihana,** Itzuli konpainia, Mendi Zolan Hendaia (martxoak 2)
- **Iki Mihi Klik,** Eleka konpainia, Donibane Lohizune (martxoak 6)
- **Atzerrian Lurra Garratz,** Huts Teatroa, Azkaine (apirilak 2)
- **Amua,** Axut !, Azkaine (apirilak 3)
- **Atzerrian Lurra Garratz,** Huts Teatroa, Ziburu (maiatzak 13)
- **Dena ongi hemen gaude,** Rouge Elea, Hendaia (Maiatzaren antzerkia - maiatzak 21)
- **Besteen kalea,** Jour de fête konpainia, Hendaia (Maiatzaren antzerkia - maiatzak 22)
- **Iki Mihi Klik**, Eleka konpania, Biriatu (ekainak 26)
- **Txoborro Magoa,** Luna Negra Baiona (uztailak 5)
- **Bidea,** Compagnie Jour de Fête**,** Donazaharre (uztailak 15)
- **Izakiak,** Compagnie Alabena**,** Citadelle en Scènes festibala, Donibane Garazi (agorrilak 25)
- **Besteen kalea,** Jour de fête konpaènia, Citadelle en Scènes festibala, Donibane Garazi (agorrilak 26)
- **Dena ongi hemen gaude,** Rouge Elea, Erabilera anitzetako gela Ziburu (irailak 24)
- **Euskal Musikaren Benetako Istorioa**, Ez dok hiru, Luna Negra Baiona (irailak 27)
- **Ispiliku sasi gibelean gordeturik, Cyranok lixibaren usain ona zuen zuen**, Hecho en casa, Trinketa, Arrosa (urriak 2)
- **Gora! Un selfie au milieu des sioux,** Balle Perdue, kolektiboa - Patxa plaza Baiona (urriak 13)
- **Euskal Musikaren Benetako Istorioa**, Ez Dok Hiru, Ezker pareta Biriatu (azaroak 11)
- **Zuek,** Rouge Elea, Trinketa, Arrosa (azaroak 13)
- **Hondamendia,** Axut!, Mendi Zolan Hendaia (azaroak 18)
- **Euskal Musikaren Benetako Istorioa,** Ez Dok Hiru, La Perle Hiriburu (azaroak 19)
- **Oihana,** Itzuli konpania, Ziburu (azaroak 19)
- **Besteen kalea,** Jour de fête konpainia, Hiriburu (abenduak 9)

Helburuak: euskal antzerkia lurraldean sostengatu, programatzaile sare bat bultzatu, publikoak zabaldu.

51. EKINTZA

## *Zinema kanpoan* programaren koordinazioa

Filmak aukeratzea eta lurraldeko herriei euskal zinema eskaintza bat proposatzea euren kanpoko eremuetan. Hiru gaualdi horietan 900 ikusle bildu dira:

- Film laburren gaualdia: *Bertzea* (Saffy Nebbou), *Lepokoa* (Saffy Nebbou), *Ama* (Josu Martinez), *Anti* (Josu Martinez), *Subandila* (Josu Martinez), Arrosa, uztailak 22

- *Dantza* (Telmo Esnal), Lekorne, agorrilak 27

- *Pasaia* (Giulia Grossmann) + *Dantza* (Telmo Esnal), Ziburu, agorrilak 28

Helburuak: euskal zinemaren karietara publiko desberdinak bildu, plazak eta ezker paretak, ondare gune bereziak diren lekuak baloratu udan zehar.

52. EKINTZA

## *Ama Lur* filmaren hedapena

Proiektua ezeztatua izan da.

53. EKINTZA

## Kultur programazioa lagundu mediateketan

Urte osoan zehar, EKEk aholkularitza egiten eta baliabide iturri izaten segitu du lurraldeko liburutegi-mediatekentzat, haien kultur programazioren osatzeko euskal literatura eta kultura integratuz.

**Biarritzeko mediateka**
Mahain ingurua: « Generoa euskal dantzan »
Parte hartzaileak: Alaia Cachenaut, Oier Araolaza, Ihintza Irungaray (Nora Arbelbideren animazioa)
Data: 2022ko irailaren 2a

Haur emanaldia: « Xana eta sudur gorri magikoa »
Dantzalai konpainiaren ipuinaldi dantzatua
Data: 2022ko irailaren 21a

**Baionako mediateka**
2022ko martxoaren 4an, Etnopoloa eta Bilketa sarearekin, Kultur eskubideei buruzko mahain ingurua (ikus 3. ekintza)

54. EKINTZA

## Kide diren elkarteei sostengua beren egitasmoetan

Hedapen proiektuak laguntzea lurraldean. 64 ekitaldi baino gehiago sostengatuak izan dira aurten, hala nola festibalak, aretoen egitarauak, ekitaldi puntualak eta erakusketak.
Bestalde, hiru proiektu eramaile mota desberdinek laguntza tekniko handiagoa dute EKE-ko misio arduradunen aldetik: zinegelek (programazioari eta proiekzioen inguruko ekitaldien antolaketari buruzko aholkularitza), Sarako Biltzarrak (obratzea eta komunikazioa), eta « sare burutzat » jotzen diren elkarteek (diru laguntza handia eta laguntza ere haien egituraketarentzat).

(Ikus 43. orrialdea: elkartekideen egitasmoak 2022)

55. EKINTZA

## Hego Akitaniako Eszena nazionalaren kultur programazioari laguntza

Hego Akitaniako Eszena nazionalari diru eta ingeniaritza laguntza bat eman euskal ikusgarrigintzaren programazioa bultzateko.

Diru eta ingeniaritza laguntza ondoko bi euskal ikusgarri horientzat:

**- Oihana** - Itzuli konpainia - Haurrei zuzendu 3 emanaldi eta publiko zabalari 2 - otsailaren 6tik 8ra - Quintaou Antzokia - Angelu

**- Fuga!** - Pantxika Telleria - Elirale konpainia - 2 emanaldi publiko zabalarentzat - urriak 20 eta 21 - Quintaou Antzokia - Angelu

56. EKINTZA

## Malandain Ballet Biarritzen kultur programazioari laguntza

Malandain Ballet Biarritz Gune Koreografikoari diru eta ingeniaritza laguntza bat eman euskal dantza programazio baten bultzateko garatzen dituen ekitaldietan.

**« Maitaldia »  – Biarritz – irailaren 8tik 18ra**
- « Karibea- Euskal Herria / Artistak lurraldeetan » izeneko focusari laguntza « Euskal eta Kreole errepertorioak zaindu eta bultzatu, gaur egungo erronkak eta problematikak » gai amankomunaren ingurua - irailaren 10etik 13ra.

- EKEren partaidetzarekin, honako ikusgarriak sustatu dira:
***Hotza*** - Traversée konpainia - irailak 11
***Eta orain…?*** - Kukai - irailak 11 eta 17
***Quadrilles*** - Maritzuli konpainia  - irailak 13
***Gernika*** - Bilaka kolektiboa - irailak 15

**« Euskal hitzorduak » - Biarritz - azaroaren 7tik 13ra**
Ondoko dantza ikusgarri programazioari laguntza:
***Mitologia Txikiak*** (eskolarrei eta denentzat zuzendutako emanaldiak) Bilaka Kolektiboaren eskutik - Gamaritz gela - azaroaren 7 eta 8a
***Neok*** - So.K konpainiaren eskutik - Théâtre du Casino – Azaroaren 12a
***Amoria & Dolore*** - Kresala taldearen eskutik - Gare du Midi - azaroaren 13a

57. EKINTZA

## Kultur eskaintzari buruzko « Ibilki + » katalogoaren sortzea

Ikusgarriak, erakusketak, mintzaldiak/idazle topaketak biltzen dituen katalogo baten sortzea, euskarazko obrak hedatu nahi dituzten Herriko Etxeen eta elkarteen programazioa laguntzeko. Ekintza hori 2023ra gibelatua izan da..

# 4.2 Mugaz gaindiko kultur lankidetza jarraitu

58. EKINTZA

### Gipuzkoako Foru Aldundiarekin « Iparraldea Bertan » zikloaren antolaketa

« Iparraldea Bertan » zikloaren 21. edizioa (martxoak 1-25) iragan da, Donostiako Koldo Mitxelena Kulturunean. Euskal kultur erakundeak, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin lankidetzan, hainbat kontzertu, hitzaldi, film proiekzio eta erakusketa eskaini ditu.

- *Francoren mende kantatzen genuenean* liburuaren aurkezpena kari, Colette Larraburuk hitzaldi kantatua eskaini du Peio eta Pantxoa, Beñat Sarasola, Joanes Borda, Panpi Lacarrieu, Patxika Erramouspé eta Gexan Alfaro abeslarien parte hartzearekin - martxoak 1

- Lumi bikotearen kontzertua - martxoak 8

- « Etxetaburu » kontzertua Mixel Etxekopar eta Jean-Christian Hirigoyenekin - martxoak 15ak

- Oskar Alegriaren « Erleketa » filmaren proiekzioa eta hitzaldia - martxoak 22

- Erakusketa Colette Larraburuen « Francoren mende kantatzen genuenean » liburuaren haritik - martxoak 1 - 25

59. EKINTZA

### Bilboko « Loraldia » festibalaren programaziorako laguntza

Diru eta ingeniaritza laguntza Loraldian (martxoak 7-27) Iparraldeko artisten programatzeko.

**- *Bozak*,** Lide Hernando (Liher), Itziar Ugarte eta Maddi Oihenart. Topaketaren animazioa : Maddalen Arzallus - martxoak 13 - Guggenheim museoa,
**- *Laboa*,** Lekeitiotik hegan – Kuraia taldea, Maddi Oihenart eta Elektrart - martxoak 16 - Arriaga Antzokia,
***- Artea, kantu herrikoiak eta vermoutha***, Zaloa Ipiña, Xendarineko Ahizpak eta Imanol Sarasola (Acha Upeldegia) - martxoak 20 - Marzana espazioa

60. EKINTZA

### Getxo hiriko « Iparra galdu gabe » festibalaren programaziorako laguntza

Diru eta ingeniaritza laguntza Getxoko festibalean Iparraldeko artisten programatzeko.

- Patxi eta konpainia - Dantza Plaza - urriak 8, Santa Eugenia plaza

- Iparraldeko hedabideen inguruan mintzaldia: Pepe Aizpuru (Euskal Irratiak) eta Pantxika Maitia (Kanaldude) - urriak 20 - Azebarri

- *Bekatorosak* - Dom Campistron - urriak 22 - Azebarri

- *Maiteder* - Kiribil - urriak 23 - Fadura

- *Terapia* kontzertua - Odei Barroso - azaroak 4 - Muxikebarri gela

- Frikunen kontzertua - azaroak 5 - Azebarri

61. EKINTZA

## Kolaborazioa Getariako Elkano Fundazioarekin

Proiektua ezeztatua izan da.

62. EKINTZA

## Durangoko Azokaren antolatzaile den Gerediaga elkartearekin partaidetza

Ipar Euskal Herriko argitaletxe, diskoetxe eta kultur elkarteendako laguntza ekonomikoa eta teknikoa 57. Durangoko Azokan (abenduaren 7tik 11ra) parte hartzeko: stand baten alokailua erraztea eta liburu eta disko berrien aurkezpenak koordinatzea eta laguntzea.
Azokan aurkeztutako urteko ekoizpen berriak biltzen dituen katalogo baten egitea, prentsaurrekoa antolatzea, komunikazioan laguntza.

Aurten, EKEk 14 egitura lagundu ditu azokan parte hartzen (hauen artean 11k mahain bat hartu dute).
Argitaletxeak: Gatuzain, Ikas, Maiatz, Zortziko, Elkar.
Diskoetxeak: Agorila, Herrimin - Kantazak, Maita Kultura, Usopop diskak, Saroia, Belarri.
Bestelako egiturak: Iparraldeko ikastolak, Hatsa elkartea.
Autoekoizpena: Watson.

Orotara 38 berritasun aurkeztu dituzte:
- 18 liburu
- 2 liburu-disko
- 16 disko
- Bestelako 2 ekoizpen

63. EKINTZA

## Aquitaine.eus programaren berriz zehaztea

EKE-k, Etxepare Institutuak eta Principe de Viana erakundeak Akitania Berria - Euskadi - Nafarroa Euroeskualdearen proiektu deialdiaren baitan eraman programa 2022an berriz zehaztekoa zen.
Bilkura batzuen ondotik, partaideek denbora batez programa gelditzea deliberatu dute, giza baliabideak eskas izanik bereziki, ezinezkoa baita Akitania Berrian partaide berrien gana joatea.

Aldiz, aitzineko hiru urteetan garatuak izan diren partaidetzak iraunarazi ditugu.

Beraz, Le Rocher de Palmer (Cenon) egiturarekin horrelako programazioa antolatu dugu elgarrekin:

Kontzertu gaualdia:
- Etxetaburu + Amorante - azaroak 26 - Le Rocher de Palmer
- Asier Gogortza « Autopsia» argazki erakusketa - azaroak 2tik 30ra - Le Rocher de Palmer

# 4.3 Kultur trukatekak sostengatu

64. EKINTZA

## Erasmus + dispositiboaren integrazioa

EKE-k « Erasmus + » partzuergoaren topaketetan parte hartu du, bai eta Combustible partaideak Europa mailako mugikortasun proiektuen obratzeari buruz proposatu formakuntza tailerretan ere.
2023an, xedea, mobilizazio proiektu horiek EKE-ko kide diren elkarteei proposatzea izanen da.

Dinamika parte hartzailea: Euskal Herriko eta Landes-etako lau elkartekidek osatzen duten partzuergoa: Combustible, Atabal, Taf Gang eta EKE.

65. EKINTZA

## SOKA-ren bertsio « transatlantikoa »-ren hedapena

2018an, Quebeceko Euskaldunak elkartea EKE-rekin harremanetan sartu zen, SOKA erakusketaren bertsio egokitu eta sinplifikatu baten sortzeko aukeraren aztertzeko (eduki gehienak bilduz hala nola ikus-entzunezkoak), egokipen horrek euskal dantzaren aberastasuna lehenik Montrealen, baina ondotik ere ipar Ameriketako beste toki batzuetan ezagutarazi beharko zituenean.

Hastapenetik proiektu honekin bat egin dugu, jakinik Euskaldunak elkarteak egitasmo honen animatzea proposatzen zuela bai ekoizle bezala, bai eta SOKA-ren bertsio « transatlantiko » honen hedapen sarearen buru bezala ere. Aldi berean berezia eta unibertsala den gure kulturaren adierazbide artistiko nagusienetarik bat euskal diasporari, baina ere publiko zabalago bati ezagutarazteko parada ezin hobea eskainiz.
COVID-19 pandemiak proiektua gibelarazi baldin badu ere, azkenean 2022ko irail honetan gauzatu da.

Gabrielle Duplantier-ren argazkiz (« Dantza izpiak » bildumatik hartuak) osatua den instalazioa irailaren 9an estreinatu da Montrealeko Munduko musikarien zentroan, besteak beste Johañe Etchebest EKE-ko zuzendariaren eta egitasmoa sustatu duten Irene Larraza Etxepare Institutuko zuzendariaren eta Bingen Zupiria Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika sailburuaren presentzian.

Bilaka dantza konpainia aritu da karia hortara baita biharamunean, irailaren 10ean, Le Ber parkean, Euskaldunak elkarteak antolatzen duen euskal bestaren karietara.

Bestalde, irailaren 8an, euskal diasporaren nazioarteko eguna kari, Pantxoa Etchegoin EKE-ko zuzendari ohiak hitzaldi bat eskaini du euskal kulturaren memoriaz eta sorkuntzaz, hau ere Montrealeko Munduko musikarien zentroan.

SOKA instalazioa Quebecen ibilarazi ondoan Ipar Ameriketako toki ezberdinetan aurkezteko asmoa du Euskaldunak elkarteak, euskal diasporako erakunde ezberdinen parte hartzearekin.

66. EKINTZA

## Kide diren elkarteen mugikortasunerako laguntza

Laguntza kide diren elkarteen proiektuak Iparraldean eta Hegoaldean hedatzeko. Lau proiektu lagunduak izanen dira beren mugikortasunean. Euskal Herritik kanpo mugikortasuna sostengatzeko, kide diren elkarteak Etxepare Institutuarekin harremanetan jartzea, haien laguntza dispositiboak ukan ditzaten. (Ikus 43.orrialdea: elkartekideen egitasmoak 2022)

# Diru bilana

| 4. ARDATZA - EUSKAL KULTURA ZABALDU | | | | |
|---|---|---|---|---|
| | | | **Pentsatua** | **Egina** |
| | KOORDINAZIOA eta prospektibak | | 27 470 € | 22 674 € |
| **4.1. Tokiko hedapena sustatu eta sostengatu** | 50. ekintza | Ibilki programaren koordinazioa | 35 641 € | 35 429 € |
| | | *soldata kostua* | *9441* | *13559* |
| | | *Komunikazio euskarria* | *2000* | *4200* |
| | | *Programaziorako partaidetza (fondo dedikatuak)* | *20000* | *17670* |
| | 51. ekintza | "Zinema kanpoan" programaren koordinazioa | 2 944 € | 3 141 € |
| | | *soldata kostua* | *944* | *1903* |
| | | *Filmen eskubideak* | *2000* | *1238* |
| | 52. ekintza | "Ama Lur" filmaren hedapena | 5 074 € | 476 € |
| | | *soldata kostua* | *1574* | *476* |
| | | *Filmen eskubideak* | *3500* | |
| | 53. ekintza | Mediateketan kultur programazioa lagundu | 1 462 € | 2 763 € |
| | | *soldata kostua* | *1462* | *2763* |
| | | *Itzulpena* | | *220* |
| | 54. ekintza | Kide diren elkarteei laguntza beren egitasmoetan | 114 288 € | 124 722 € |
| | | *soldata kostua* | *6588* | *17722* |
| | | *Partaidetza elkarteekin* | *107 700 €* | *107000* |
| | 55. ekintza | Hego Akitaniako Eszena Nazionalaren kultur programazioari laguntza | 11 373 € | 9 148 € |
| | | *soldata kostua* | *1373* | *2358* |
| | | *Partaidetza programazioarentzat* | *10000* | *6790* |
| | 56. ekintza | Malandain Ballet Biarritz kultur programazioari laguntza | 4 873 € | 7 318 € |
| | | *soldata kostua* | *1373* | *2318* |
| | | *Partaidetza programazioarentzat* | *3500* | *5000* |
| | 57. ekintza | Kultur eskaintzari buruzko "Ibilki +" katalogoaren sortzea | 7 781 € | 364 € |
| | | *soldata kostua* | *5781* | *364* |
| | | *Euskarrien sortzea (baliatu gabeko fondo dedikatuak)* | *2000* | |
| **4.2. Mugaz gaindiko kultur lankidetza jarraitu** | 58. ekintza | "Iparraldea Bertan" zikloaren antolaketa Gipuzkoako Foru Aldundiarekin | 6 246 € | 4 367 € |
| | | *soldata kostua* | *2246* | *2315* |
| | | *Partaidetza programazioarentzat* | *4000* | *2052* |
| | 59. ekintza | Bilboko "Loraldia" festibalaren programaziorako laguntza | 5 003 € | 4 217 € |
| | | *soldata kostua* | *2003* | *1217* |
| | | *Partaidetza programazioarentzat* | *3000* | *3000* |
| | 60. ekintza | Getxo hiriko "Iparra galdu gabe" festibalaren programaziorako laguntza | 3 003 € | 4 528 € |
| | | *soldata kostua* | *2003* | *2095* |
| | | *Partaidetza programazioarentzat* | *1000* | *2433* |
| | 61.ekintza | Elkarlana Getariako Elkano fundazioarekin | 3 000 € | 32 € |
| | | *soldata kostua* | *2003* | *32* |
| | | *Partaidetza programazioarentzat* | 997 | 0 |
| | 62. ekintza | Partaidetza Durangoko azokaren antolatzaile den Gerediaga elkartearekin | 10 083 € | 10 400 € |
| | | *soldata kostua* | *4083* | *3686* |
| | | *Laguntza artisten eta argitaletxe/disketxeen mugikortasunarentzat* | *6000* | *6714* |
| | 63. ekintza | "Aquitaine.eus" programaren berriz zehaztea | 14 664 € | 7 291 € |
| | | *soldata kostua* | *4664* | *3786* |
| | | *Partaidetza programazioarentzat* | *10000* | *3505* |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| **4.3. Kultur trukaketak sostengatu** | 64. ekintza | Erasmus + dispositiboaren integrazioa | 5 776 € | 1 777 € |
| | | *soldata kostua* | *2776* | *1777* |
| | | *Mugikortasunen kostua* | *3000* | |
| | 65. ekintza | SOKA-ren bertsio « transatlantikoa »-ren hedapena | 7 768 € | 17 123 € |
| | | *soldata kostua* | *3768* | *4957* |
| | | *Programaren kostua (fondo dedikatuak)* | *4000* | *12166* |
| | 66. ekintza | Kide diren elkarteen mugikortasunerako laguntza Euskal Herritik kanpo | 10 380 € | 10 655 € |
| | | *soldata kostua* | *580* | *1155* |
| | | *Partaidetza elkarteekin* | *9 800 €* | *9 500 €* |

| | | |
|---|---|---|
| **4. ARDATZA OROTARA:** | **276 829 €** | **266 423 €** |
| soldatak: | 80 132 € | 85 155 € |
| beste gastuak: | 196 697 € | 181 268 € |

# Elkarteen egitasmoak 2022

# Ondarea

## Altzükütarrak

**Xiberuko kantu batzuen argitalpen berria eta hedapena**

80-90 hamarkadetan kazetetan grabatu hirurogei kantuaren bilketa egina izan da. Bilduma hori numerizatu da, KD euskarritan kontserbatzeko eta hedatzeko.
2022ko lehen seihilabetean - Euskal Herria eta diaspora

## Brin d'herbe

**Euskal Herriko landareetaz eta animaleetaz, gure aitatxi-amatxiek bazakiten...**

Landareetaz, animaleen ongi izateaz, hazleetaz adinetakoek daukaten jakitatearen biltzea eta agerian ematea.
2022ko urtarriletik urrira.

## Hitzamintza

**Hitanoari buruzko bilketa**

Bilketa lan bat noka formak biltzeko asmoarekin eta elkarrizketen tratamendu intelektuala.
Data: Urtean zehar

## Kabala

**Ka[BAL]-1**

Dantzaren eta musikaren transmisioari buruzko ahozko memoriaren bilketa, gaurko besten kontestu berezian (iragana, oraina eta geroa kondutan hartuz).
2022ko urtarriletik ekainera.

## Urpeko ondarea

**Ahozko memoriaren bilketa Euskal Herriko itsaspeko karta arkeologiko baten eraikitzeko xedearekin**

Lekukotasun etnografikoak filmatu interes arkeologikoa duten guneetan, nahitara edo ez gordeak izan diren ekaietaz.
2022ko otsailetik azarora.

# Transmisioa

## Artetxea

**Antzerki tailerra**

Peio Berterretxek 11 urtez goitiko haurrendako antzerki tailerrak kudeatu ditu bakantza denboran. Gazteek « Edgar » eta « Motoa » antzezlanak muntatu eta aurkeztu dituzte urriaren 1ean herriko Artetxea gelan.
Izturitzeko Artetxea gela – 2022ko urtean zehar

## FSE La Citadelle

**« Kolegioak kantuz » egitasmoari laguntza**

Egitasmo honek lurraldeko bost kolegio elkartu ditu koru kantuaren inguruan:
Donibane Garaziko Zitadela kolegioa, Baigorriko Jean Pujo, Angeluko Stella Marris, Hendaiako Irandatz, Larzabaleko Manex Erdozaintzi Etxart, Bidaxuneko « Collège Pays de Bidache » kolegioa.
2022an hizkuntza guttituen inguruko errepertorio bat landua izan da.
Ikasleak, musikari profesionalez lagunduak izan dira : Allande Etxeberri, Paxkal Irigoyen, Ekhi Lambert, Jokin Irungaray eta Kristof Hiriart.
Bi emanaldi :
- Maiatzaren 20an Baigorrin
- Maiatzaren 31n Samatzen

## Giltzaera

**Kantuz kantu**

Gazteei zuzendu kantu tailerrak, Mirentxu Aguerre eta Pantxix Bidart-ek eramanik.
Datak: Urtean zehar

## Giltzaera

**Musikariak ikastetxeetan**

Musika tailerrak institutuetan egungo musikarien lanak eta, oro har, euskal musika ezagutzera emateko helburuarekin.

## Herri Soinu

**Hartza altzoan festibalari laguntza**

Euskal artisten programazioari laguntza Arte eta kultur heziketa festibala denboran, Errobi lurraldean :
SO.K konpainia, Arantxa Lannes, Philippe Albor-Maialen Alfaro, Cédric Lépine, Ihintza Irungaray, Joana Erdozaintzi Etxart.
2022ko ekainaren 10etik 12ra

## Iparraldeko Abesbatzen Elkartea

**Kantu bilduma 2022**

60 bat koru abeslariren topaketa, errepertorio berri baten lantzeko helburuarekin. Bi kontzerturen antolaketa.
Datak: 2022ko azaroaren 6a (Uztaritze), azaroaren 20a (Azkaine)

## Iparraldeko Dantzarien Biltzarra

**Iparraldeko Dantzarien Biltzarraren egitasmo orokorrari laguntza**

EKEk federazioaren 2019-2022 kultur proiektu orokorra sostengatzen du, egitasmoaren bi alor estrategikori arreta berezia ekarriz : euskal dantzaren transmisioa, dispositibo desberdinen bidez eta hedapen alorra ekitaldien antolakuntzaren bidez.
Formakuntza:
- Dantza Sarean ikastaroak (eremu bereko dantza taldeetako gazteei zuzenduak)
- Dantza ikastaroak (publiko gazte zabalari zuzenduak)
- Zabala moduloa (euskal dantza tekniketan berezitu eta dantza garaikideari sentsibilizatu nahi diren gazteei zuzendua)
- Jalgi dispositiboa (euskal dantzan berezitu nahi duten gazteei zuzendua)
- Masterklaz Xiberoa (Xiberoko dantza teknikan berezitu nahi duten gazteei zuzendua)

Ekitaldien antolakuntza:
- Dantzari ttiki : Haur, dantzari eta musikarien urteko topaketa, programa amankomun baten inguruan.
- Harri Xuri Dantzan : Luhusoko Harri Xuri gelan dantza emanaldi batzuen programazioa, lurraldeko sorkuntzak argitan emateko xedearekin
- Beste lurralde batzuekin senidetze proiektua : War'leur bretoi dantza federazioarekin trukaketak haur eta nerabeentzat.
- Eskolarteko dantza proiektuak: Arimen gaua - Olentzero

## Jostakin

**Haurrendako antzerki tailerrak**

Makea, Lekorne eta Heletako gazteei zuzendu antzerki tailerren antolaketa, Peio Berterretche-ren zuzendaritzapean. Emaitzaren aurkezpena Makeako Mindegia gelan.
2022ko uztailaren 21ean

## Jostakin

**Baigurako bolantak**

Baigurako bolanten inguruko transmisio egitasmoa: Ikastaroak, mintzaldiak, ikus-entzunezko bilketa (transmisio eta gogoeta gune baten sortu, garatu eta egonkortzeko).

Duguna eta Añorgako dantza taldeekin dantza topaketak, josketa tailerrak.

Libertimenduak 2023ko otsailaren 12 eta 18an

## Maritzuli

**Kultur egitasmoari laguntza**

Maritzuli konpainiaren kultur egitasmoari laguntza bi sailen bidez :

Dantza maisu akademiari eta mintzaldi-erakusketen hedapenari laguntza.

- Formakuntza saila: « Dantza maisu akademiari »: dantza maisuen formakuntza ibilbidea jakitate transmititzaileen formatzeko ohiko dantzaren teknika eta historioari buruz.
- Hedapen saila: « Dantzaz ele », « La Pamperruque » eta « Jantz'Hadi » mintzaldi erakusketen hedapenari laguntza.

## Mintzalasai

**« Egun bat, hitz bat » egutegia**

Egutegi hori, egunerokotasunean, urteko 365 egunetan euskararekiko eta kulturarekiko lotura sortzeko tresna da. 7 gaien inguruan kontzeptuak azalduak izan dira:

Hizkuntza, kultura, historia, geografia, pertsona/pertsonaia historikoa, soziolinguistika, erran zaharrak.

## Olentzeroren lagunak

**« Olentzeroren tradizioa» mintzaldia**

Mintzaldi baten sortzea Olentzeroren ohiduraren berpiztearen inguruan. Mintzaldi hori besteak beste Argentinako Euskal Etxeetan aurkeztua izan da.

## Sarde sardexka

**Lur'Istorioak ekitaldia**

Sarde Sardexka elkarteak tresna ludo-pedagogiko bat sortu du egitasmo honekin: EHko zortzi ekoizpenen deskubritzeko beharrezkoa den euskarri eta materialaren sortzea. Euskal ondare gastronomikoaren deskubriaraztea eta sormarkak ezagutaraztea dira helburu nagusiak. Material honen bidez eramanak izan diren deskubritze tailerrak 3 zailtasun maila ezberdinentzat garatuak izan dira: 7 urtetik goiti/ 10 urtetik goiti / 15 urtetik goiti.

Garatutako tresnak: Animazio gida bat, gaikako hiztegiak, jarduera fitxak

## Zukugailua

**Zine tailerrak**

Lukas Iriartek eramanik, 14-18 urteko gazteei zuzendutako zine tailerrak proposatuak izan dira Kanboko mediatekan. Hiru arratsaldez, MashUp mahainari esker, parte hartzaileek muntaketaren sekretuak deskubritu dituzte eta zinemaren historia ezagutu.

Kanbo - azaroaren 2, 3 eta 4.

## Zukugailua

**« Kirikoketa » idazkera egonaldia**

Egitasmo honek Irisarrin egonaldian egon diren lurraldeko sei zinegile hauen film idazketak lagundu ditu: Itziar Leemans, Loredey Werdyn, Andoni Betbeder, Carmen Echeverria, Lucie Francini eta Sabina Hourcade. Egitasmoaren koordinazioa Loïc Legrand-en eskutik egin da eta parte hartzaileen segipena Myriam Ayçaguer eta Laurie Bost-en presentzian.

- Irisarriko Ospitalea - Egonaldiak: 2021eko azaroaren 2tik 6ra eta 2022ko otsailaren 14tik 18ra
- Irisarriko Ospitalea - Film egitasmoen berreraikitze publikoa: 2022ko apirilaren 22an.

# Sorkuntza

## Atelier

**« Aterpean » artista egonaldiaren 16. edizioari laguntza**

Aurten, Donostiako OSA+MUJIKA konpainiaren *Bueltaxka* egitasmoa hautatua izan da « Aterpean » programarentzat. Sorkuntza egonaldiak Errenteriako Dantza gunea zentroan iraganen dira:
Uztailaren 11tik 15era
Uztailaren 18tik 23ra
Uztailaren 25etik 26ra
Errepika publikoa: uztailaren 27a
Emanaldiak: Sorkuntza *Dantza Hirian* festibalaren karietara aurkeztua izan da, irailaren 10ean Irunen eta irailaren 11n Biarritzen.

## Axut!

**Hondamendia**

2020an, milioi eta erdi metro kubiko industria-hondakin isurketa gertakarian oinarritu antzerki sorkuntza sustatu da.
Estreinaldia Luhusoko Harri Xuri gelan - urriak 14

## Bat egin

**Itsaso zabalera**

Interprete batendako ipuin partehartzaile baten sortzea.
2021ean Elkar argitaletxeak argitaratu duen liburua da *Itsaso zabalera!*. Mayana Itoïz margo lanetan eta Maialen Alfaro idazlanean aritu dira. Liburuari lotua den emanaldi bat sortua izan da, zuzendari artistiko batekin landua.(haurtzaindegi, ama-eskola eta lehen mailentzat egoki daitekeen istorio aktiboa)
Laguntza artistikoa: Maryse Urruty
Testua eta musika: Maialen Alfaro
Taula gainean: Maialen Alfaro
Gaiak: Bidaia, istorio parte-hartzailea, arnasa, gorputz entzumena, lasaiketa

## Bi'arte

**« Gure mitologiaren hatsa »**

Ixabel Millet-ek sortu eta animatu euskal mitologiaren inguruko saioa sustatu da. Lehen mailako ikasleeri aurkeztu da Hendaiako mediatekan abenduaren 3an.
Hendaia - Urtean zehar

## Bi'arte

**CTLA egitasmoa**

Ljubomir Simovic serbiar autorearen « Le théâtre ambulant de Chopalovitch » antzezlanaren egokitzapen egonaldian Bi'Arteren parte hartzea lagundua izan da. Tokian tokiko Hizkuntzetako Antzokien Kolektiboak antzezlan hori bost hizkuntzetan egokitzeko asmoa du (Euskara, katalana, alsaziarra, bretoindarra, okzitandarra).
Rodez hiria – 2022ko uztailaren 20, 21 eta 22an.
Biarritz - 2022ko azaroaren 7 eta 8an

## Bilaka

**Mitologia Txikiak**

Euskal mitologia, inauteri-erritu, kontakizun, kondaira eta antzekoak oinarri duen sorkuntzari laguntza. Ikuskizunean lau dantzarik eta musikari batek parte hartzen dute. Estreinaldia Biarritzeko « Euskal Hitzorduak » ekitaldian aurkeztu da.
Biarritz - 2022ko azaroaren 7 eta 8an.

## Bunuztar xoriak

**Laminosine ikusgarria**

Diziplina anitzeko (dantza, ipuina, musika) « Laminosine » ikusgarriaren sorkuntza, mitologiaren gaiaren inguruan.
Data: 2022ko uztailaren 9an

## Burgaintzi

**45. urtemuga**

Dantza taldearen 45. urtemugaren ospatzeko, diziplina anitzeko ikusgarri baten sorkuntza lau elementuen inguruan (ura, lurra, sua, airea)
Datak: 2022ko urriaren 29 eta 30ean

## Dantzalai

**« Xana eta sudur magikoa » sorkuntzari laguntza**

Dantza eta ipuina uztartzen dituen ikusgarria. « Xana eta sudur gorri magikoa » ikusgarriak formatu sinplea du guneari egokitzen dena. Artista bakarrak ematen du, dantzaria eta kondalaria dena: Eneka Bordato Riano.

Publikoa: 4 urtetik goiti
Iraupena: 35 minutu
Ikusgarriaren gaia: Nork bere buruari ezartzen dizkion mugei buruzko gogoetatzea proposatzen du, baita emozioen bizitasunaren esploratzea ere.

## Elgar oinka

**« EO » ikusgarria**
Dantza taldearen 50. urtemuga ospatzeko, performantza artistiko eta ibiltari baten sorkuntza, denbora azkar batekin Mendeala gelan.

Datak: 2022ko irailaren 10 eta 11n

## Elirale

**2022ko Kultura egitasmoa**
Dantza konpainiaren egitasmo orokorra sostengatu da, hau da: *Fuga* obraren sorkuntza, *Oahuetak* , *O!*, *Xihiko*, *Fuga* eta *Panpiña* emanaldien hedapena Pirinio Atlantikoetako Departamendutik kanpo eta euskarazko mediazio lanak.

Urtean zehar

## Etxola

**« Maddiren trajeria » pastorala**
Gerardo Mungia-k idatzi « Maddiren trajeria » pastoralaren taularatzea eta ematea.
Datak: 2022ko urriaren 15 eta 16an (Zugarramurdi), urriaren 22 eta 23an (Sara)

## Ezkandrai

**Haratago diskoa**
Diskoaren II. eta III. atalak egonaldi batzuen bidez gauzatu dira Julen Axiari, Nicolas Nageotte, Jordi Cassagne eta Bastien Fontanille musikarien eskutik. Diskoa 2023ko otsailaren 23an Baionako Michel Portal antzokian aurkeztua izan da.
Senpere - maiatz-ekainean eta irail-urrian

## Haran ubel

**Egonaldia**
Magali Brueder marrazkilari eta ilustratzailea aste batez Alduden egon da mendiari buruzko liburu irudi baten sortzeko. Haurrentzat tailerrak proposatu ditu. Egonaldia liburuaren aurkezpen publikoarekin bururatu da.
Aldude - uztailaren 23tik 31ra.

## Hatsa

**« Hatsaren poesia » egitasmoari laguntza**
Hatsa elkarteak euskarazko olerkiaren inguruko hitzordu batzuk antolatu ditu urtean zehar:
« Hatsaren Poesia » egunaren antolatzea, martxoaren 27an, Senpereko Larraldean.
